

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2021eko maiatzak 21 • 1188. zenbakia



## BIZIKLETAK MAITE DITUEN HERRIAREN PLAZA



## Recalde

Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

Miopia ebakuntza, kataratak  
eta presbiziaren kirurgia



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • [www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)



# Eibarko terrazak.

Arnasa hartzeko  
leku bat.

**GE**  
grupo eibar  
inmobiliaria

*Zure bizitza  
eraikitzen...*

EIBAR  
**estaziño**  
ERAIKINA



**Dagoeneko SALGAI!**

[www.egogain3.com](http://www.egogain3.com)



**EGOGAIN3**

Teilatupeko atikoa: Harribitxi bakarra  
Eibarko erdialdean **terraza eta  
solariumarekin.**

[www.urkizu4.com](http://www.urkizu4.com)



**URKIZU4**

2 eta 3 logela, hegoalderantz  
terrazeekin:

**EGUZKIA URTE OSOAN.**

Logela bateko etxebizitzak ere bai.

## Eibarko zure geltoki berria

[www.estaziño.com](http://www.estaziño.com)



- 2 eta 3 logelako etxebizitza argitsuak terrazekin
- Terraza edo balkoi zabala etxebizitza guztietan
- Ingurune ireki eta hiritarra, erosotasun guztiez inguratua
- Errebal merkataritza-gune berritik 70 metrora
- Etxera igogailu bidez sarbide zuzeneko **garajeak**
- Zure etorkizuneko etxea **personalizatzeko** hainbat aukera



**GE**  
grupo eibar  
inmobiliaria

Informa zaituz sustapen hauei eta beste batzuei  
buruz gure webgunean edo idatzi helbide  
honetara: [comercial@grupoeibar.com](mailto:comercial@grupoeibar.com)

[www.grupoeibar.com](http://www.grupoeibar.com)

**EIBARKO BULEGOA:** Ibarkurutze plaza 10

943 31 66 11 • 630 248 383

**CARMELO URDANGARIN, "ZIBIL eta ZABAL"**

Carmelo gogoratzera, berarekin ikusi eta ikasitakoa eskertu nahiko nuke. Bere lanbide profesionalek kanpo ere, Debako zentral nuklearraren aurkako mugimenduan, udal politika eta kulturgintzan, bailarako proiektu berritzaile eta aurrerakoietan, kooperatibagintzan eta abarretan, asko ikasi baitut.

Beti ere gizatasunean eta eskuzabaltasunean oinarriturik, geurean sustraiturik, mundu zabalera irekirik ZIBIL eta ZABAL.

JM ULAZIA IBARZABAL

"Covid-19 pandemian, EAEn behintzat, agintariak herritarrak ergel bezala tratatu gaituzte. Babes-neurriak kutsadura kontrolatzeko ezinbesteko bihurtu zirenean, jendearen osasun-heziketa bultzatzea zailegia iruditu zitzaiezen nonbait eta debekuen bidea lehenetsi zen. Jende askok ere 'vivan las caenas' lelo espainiar tradizionalari heldu zion, debekuen bide hori txalotuz: 'Bestela ez genuke eta beteko!'. Hau da hau, astoak berak uhala, makila eta azenarioa eskatzea! Jende honek bere burua ergeltzat badu, eta agintariak beren neurriekin uste hori berresten badute, normala da iragan astean bizi izan genuen bezalako egoera absurdoak gertatzea".

OIER GOROSABEL, fisioterapeuta

"Euskadin optimismo-egoera aldarrikatu da 200 kasurekin Australian 0'55ekin euren COVIDaren aurkako paradisuari 2022ra arte eutsiko dioten bitartean. Australiak 25 milioi biztanle ditu eta kutsatuen kopuru handiena apirilean izan zuen, herrialde guztian 44 kutsatu berriekin eta 100.000 biztanleko intzidentzia 1'23 kasuetara iritsi zenean. Hori izan zen euren olatuaren gorena, Euskadikoa baino bostehun aldiz txikiagoa. Aurreko domekan hiru positibo izan zituzten eta hilabeteak daramatzate hildakorik gabe. Foball-estadioetako harmailak jendez beteta, jendea maskarillarik gabe eta bertako eguzkiak gozatuz... Mundutik isolatu eta euren 7.700 kilometro karratuetan disfrutatzen. Eurak dira turista onenak bere lurraldean eta ez dituzte ingelesak edo alemaniarrik behar euren kontuak koadratzeko. 14 hilabetetan funtzionatu duen estrategia horrekin ez dute zertan hurrengo olatuaren zain egon. Hemen ahalko zen halakorik egin?"

ALEXIS ALGABA, zutabegilea

**Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera**

**NEGU GORRI.-** Negu gogorra. Gaztelarazko 'pleno / crudo invierno'. "Negu gorrixan juan bihar izan giñan".

**NEGUKO TXORI.-** Gogo gabe, bakarrik ibiltzen denari buruz esaten da. "Neguko txorixa dirudi, hotzak kukulduta."



Euskara Elkarteak

**ARGITARATZAILEA**

...eta kitto! Euskara Elkarteak

**HELBIDEA**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK**943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285**FAXA**

943 20 28 72

**ASTEKARIAREN E-MAILAK**

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK**

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**Ana Aizpurua, Ekhi Belar,  
Jose Luis Gorostegi, Malen Illarremendi eta Silbia Hernandez**ADMINISTRAZIOA**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA**

Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA**

Silbia Hernandez

**DISEINUA**

Maku Oruezabal

**MAKETAZIOA**

...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**Malen Jainaga eta  
Malen Illarremendi**HIZKUNTZA ARDURA**Juan Andres Argoitia eta  
Maider Aranberri**PUBLIZITATEA**

Belen Ulazia

**TELEFONOA**

943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**

Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURA**

Idoia Labado

**TIRADA**

8.150 ale

**INPRIMATEGIA**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA**

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)







## Eskultura berria ipini dute Eibarko Bizikleta Plazan

>>> Aurreko barixaku eguerdian inauguratu zuten Eibarko Bizikleta Plaza apaintzen duen brontzeko eskultura berria. Bizikleta gainean dagoen neska baten irudia da, Alfa Arten egindakoa, eta plazaren alboetako batean ipini dute, hain zuzen ere plazaren izena duen plakaren azpian. Ekitaldian Udaleko alderdi guztietako ordezkariak egon ziren, Eibarko Txirrindularien Elkarteko ordezkariekin batera. Jon Iraola alkatearen berbetan, "Alfa Arten egindako eskultura hau Eibarko Bizikleta Plazan ipintzeko oso aproposa iruditu zitzaigun. Horrez gain, emakume eta gizonen arteko berdintasuna irudikatzen du".



## Hasi dira El Casco enpresa hartu zuen eraikina erausteko lanak

>>> Aste honetan, martitzen hasi dira Eibarko El Casco eraikina botatzen. Olave y Solozábal 'El Casco' enpresak, Eibarko historia industrialeko enpresa enblematikoetako batek, Elgetako pabiloi industrial batera eraman zuen bere

jarduera guztia. Eremu horretarako hirigintza-planek tailer zaharra eraistea, laurogei etxebizitza libre inguru eraikitzea eta kale horretan ubana berritzea aurreikusten dute, Errealgo hirigintza-errealitate berriarekin lotuz.

## Ordutegi berriak izango ditu Udalbusak astelehenerdik aurrera

>>> Astelehenean sartuko dira indarrean Eibarko Udalbusaren ordutegi berriak. Zerbitzuaren adjudikazio berria dela-eta, erabileraren azterketa egin da, eta horretan oinarrituta geltokiak eta ordutegiak egokitu egin di-

tuzte, batzuk indartuz eta beste batzuk kenduz.

Ordutegi zehatzak Interneten eskuratu daitezke, Eibarko Udalaren webgunean eta, bestela, Pegoran triptikoa eska daiteke.



## Salbuespen neurriekin amaitzeko eskaera

>>> Eibarko Sarek datorren astean egingo duen azken barixakuko ekitaldirako goiburua "Salbuespen neurriekin amaitu" izango da. Diotenez, "izan ere, euskal presoan auzia konponbidean jartzeko derrigorrezkoa da salbuespen neurriekin amaitzea. Isolamenduarekin amaitu dugu, dispersioa txikitzen doa eta Euskal Herrira hurbiltzen ari dira, baina oraindik etxerako bidean dituzten oztopoak asko eta oso gogorak dira: baldin-

azken ostirala  
presoa eta Festeiak  
etxera



tzapeko askatasuna lortzeko, graduen progresioa egiteko, baimenak izateko... Gure ustez, euskal presoari legedi arrunta ezartzeko garaia da". Hori eskatuko dute datorren asteko barixakuan, 19:30ean Untzagan.

## Plaza Hutsa aurkeztuko dute egunean Kultur

>>> Berreuskalduntze prozesuari eta euskalgintzari buruz ezker independentismoak egindako gogoeta estrategikoa den Euskararen Plaza Hutsa aurkeztuko dute egunean, 18:00etan Kultur. Eibarko euskalgintzan lanean ari direnekin eta interesa duten pertsonekin gogoeta partekatu nahi dute eta, hori dela eta, parte hartzera gonbidatu nahi dituzte.





## Zozketatu dituzte Zaporeak Proiektuaren aldeko artelanak

>>> Barixakuan itxi zuten Zaporeak Proiektuko denda Untzagako jubilatuko etxean. Bi astetan saldutako erroparekin 2.500 euro bildu dituzte eta rifen salmentari esker beste 950 euro inguru, eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete bertara joan eta lagundu duten guztiei.

Zozketa barixakuan bertan egin zuten eta hauek dira Esteban Oroz, Esther Galarza eta Elisabeth Eguren artistek emandako artelanekin saritutako zenbakiak: 0079 zenbakiari egokitu zaio "Itsasoko ostra"

zeramika-lana (ordezkoa 0481 da); 0305 zenbakiak "Udaberria" margolana irabazi du (ordezkoa 0468 da); eta 0227 zenbakiak, berriz, "Arrajola baserria" koadroa (ordezkoa 0009 da). Hiru artelanak Untzagako jubilatuko etxean daude eta irabazleek bertan jaso ditzakete (zuzendaritzara jo behar dute eta Conchi Vilarengatik galde-tu). Sari bila joateko epea gaur gauerdian amaituko da eta, irabazlerik agertu ezean, zuzenean ordezkoez izango da (ordezkoentzat epea maiatzaren 22tik 29ra bitartekoa da).

## Isabel Elorza hautatu dute Eibarko EAJ-PNVren exekutibaren buru

>>> Aurrerantzean Isabel Elorzak (Eibar, 1970) gidatuko du Eibarko EAJ-PNVren Uri Buru Batzar berria. Exekutiba jeltzalearen kargu egingo den bigarren emakumea da, eta ardura honi "ilusioz eta gogoz" helduko diola adierazi du. Horren harira, Miren Sojok bere garaian hartutako erabaki "ausarta" ekarri nahi izan du gogora, alderdiaren buruzagitza hartu zuen lehenengo emakumea izan zelako Eibarren. Era berean, Alex Arriola buru izan zuen aurreko taldeari bere esker ona agertu dio, "gazteriaren aldeko apustua sendotzeko eta

herritarrengana gerturatzeko egindako lan apartarengatik". EAJ-PNVren Uri Batzarrak hautatu duen zuzendaritza hamar kidek osatuko dute eta COVID-19aren eraginez atzeratu behar izan zen barne-prozesuari amaiera eman dio. Aurreko Uri Buru Batzarreko lau kidek beste agintaldi batez jarraituko dute eta horiei beste bost kide berri gehituko zaizkie, taldea horrela osatuta: Isabel Elorza, Iker Laka, Ivan Iriondo, Iker Zeballos, Ane Abarrategi, Asier Feijoo, Josu Agirre, Laura Martinez, Lander Abarrategi eta Fernando Gutierrez.



Astindu ohiturak!!

Ogasunarekin  
euskaraz

Eibarren  
**AKEBAI**

Errenta aitortpena?  
Aurten, duda barik,  
**EUSKARAZ!!!**

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan, euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Mekanizatua egiteko** ordua hartzerakoan, euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Internet bidez** egitean errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi, eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu.
- **Aholkularitza**ren bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.



## TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

## Gure kolaboratzaile izan zen Carmelo Urdangarin ekonomilari, idazle eta ekintzailea hil da

>>> Maiatzaren 14an hil zen, 89 urterekin, Deban jaiotako ekonomilari, idazle, enpresari eta kultur arloko ekintzaile ezaguna. Peritu-ikasketak eta merkataritza-irakaskuntzako ikasketak egin ondoren, jarduera profesionalean hainbat enpresatan zuzendaritza-karguak bete zituen, hala nola, Orbea, Euskadiko Kutxa (enpresabarrutia) eta Danobaten, azken horretan jubilatzeke 1997an. Kutxa eta Lagun Aro entitateetako zuzendaritza-organoetako kidea ere izan zen eta, 2009tik 2014ra arte, Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoaren Fundazioaren patronoa. Deban eraiki nahi zen zentral nuklearraren aurka aritu zen, ehundaka hitzaldi emanaz.

Hainbat hedabidetan jardun izan du kolaboratzaile; esaterako, Euskadi Irratian, Herri Irratian, inguruko egunkarietan eta baita gure astekarian ere, bisaitan. Ekonomia, historia eta etnografiari lotutako "Eskulan-gintza eta ofizio tradizionalei" buruzko 4.600 artikulua inguru




eta hogeitaz baina gehiago idatzi zituen, euretako askotan Jose Maria Izaga lagun zuela. EHU-k antolatutako graduondoko ikastarotan ere hartu du parte, batez ere kanpo merkataritzari buruzkoetan.

Gure eskualdean urtero bantzen den Gure Balioak Saria eman zioten, 2013an, sariaren IV. edizioan. Aranzadi Elkar-tearen, Eusko Ikaskuntzaren eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoaren Fundazioaren partaidea ere izan da.

## Erreferendumaren aldeko sinadura bilketa eta denda

>>> Gure Eskuk eta Euskal Herriko beste 23 eragilek erreferendumaren aldeko sinadura bilketa jarri dute martxan. Diotenez, "ekimen honekin, herritarren gehiengoak erabaki nahi duela ikustarazi nahi dugu eta, indarrak batuz, estatus politikoaren inguruko erreferenduma zein bestelako erreferenduma ahalbidetu. Datozen hilabeteotan milaka eta milaka herritarren konpromisoa pilotzeko erronka dugu esku artean eta, erronka hori betetzeko, denon ahalegina behar dugu".

Herritarren sinadurak jasotzeko asmoz, bihar (zapatua) mahaia ipiniko dute Untzagan, 12:30etik 14:00etara. Horrekin batera, ekimenaren inguruko



materiala bertan erosteko aukera egongo da. Gainera, nahi dutenek Klub Deportiboan izango dute sinatzeko aukera, martitzen eta eguenetan, 18:00etatik 20:00etara. Eta, horrez gain, interneten ere sinatu daiteke erreferendumaren alde (hamai-kagara.eus/sinatu).

## Banketxeei informazio argia eta zerbitzu hobea emateko eskaera

>>> Eibarko Pentsiodunen Mahaiak banketxeek ematen duten zerbitzuaren inguruko mozioa aurkeztu zuen orain dela egun batzuk Udalean eta Udaltzaz onartu egin du. Herriko banketxeei informazioa modu argiagoan ematea eskatzeaz gain, bezeroei arreta

hobetzea eskatuko die Udalak. Jasota dagoenez, "langile gutxiago daudenez eta jendaurreko ordutegia murriztuagoa denez, lehen leihatilan egiten ziren gestio asko orain ordenagailuz edo kutzazainean egin behar dira eta pertsona batzuei kostatzen zaie moldatzea".



## Eibarko pentsiodunek bihar eguerdirako manifestazioa deitu dute, hilaren 29ko mobilizazioaren atarian

>>> Eibarko pentsionisten taldeak borrokan jarraitzen duela eta astelehenero Untzagan kontzentrazioak egiten dituztela gogorarazi nahi die herritarrei. Horren harira, biharko herri mailako manifestazioa deitu dute, Untzagatik hasita. Aurretik, pentsiodunen eskarener berri ematen duten eskuorriak banatuko dituzte Untzagan bertan.

Horrez gain, hilaren 29an Euskal Herriko hiriburu guztietan eta herri askotan egingo den mobilizazio orokorraren aurretik, egunean Eibarrera ailegatuko da Gipuzkoa zeharkatzen ari den bizikleta martxa: "Maiatzaren 27an, 11:00ak aldera bizikleta martxak Eibar

zeharkatuko du, Elgoibarre-rako bidean, eta Untzagan harrera egin eta pasatzen denean animatzea nahi dugu. Horregatik, ahal duen jendeari Untzagara joateko gonbidapena egin nahi diogu".

Eta maiatzaren 29an berriz ere manifestazioa egingo da. Egun horretako mobilizazioa eskualde mailakoa izango da eta Untzagatik irtengo da, 12:00etan, "gizartearen zati bati eragiten dion egoera salatzeko, hau da, alarguntza-pentsioen eta genero-arrakalaren arazoak salatzeko. Horrekin batera, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 1.200 eurokoa izatea aldarrikatzen jarraitzen dugu. Jasagarritasun-faktorea behingoz indargabetu behar da, pentsiodunak zein langileak zigortzen dituzten legeak alde batera utzita. Eta Gizarte Segurantzaren kontuak argitzeko auditoria eskatzen dugu, gastuen aitzakiarekin pentsioen murrizketak justifikatu nahi dituzte eta". Manifestazioak sindikatu gehienek babesa izango du, "baita mugimendu feministarena, gazteen erakundeena eta Euskal Herriko Eskubideen Karta Sozialarena ere".



## Leiho eta balkoiak apaintzeko lehiaketa antolatu dute

>>> Udaleko Ingurumen Sailak herriko balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa antolatu du hirugarrenez, Debegesa Garapen Agentziarekin lankidetzan. Antolatzaileen berbetan, "herritarren parte-hartzearen bidez, Eibarko ingurumenaren kalitatea eta itxura hobetzea eta, horrekin batera, landareei eta loreei garrantzia emanez, herrigune atsegina eta ederragoa lortzea da lehiaketaren helburua".

Lehiaketa eibartar guztientzat zabalik dago. Parte hartzeko aurrez izena eman beharko da, maiatzaren 26tik ekainaren 18ra arte, udalaren webgunean eskuragarri egongo den formularioa bete edo, bestela, eguaztenean, 10:00etatik 13:00etara Untzaga plazan egingo den lore banaketan. Untzaga plazan banatuko diren loreetako bat jaso-

tzeko, beharrezkoa da etxe guztietan banatu den inprimakia betetzea eta entregatzea. Sarietara dagokiez, herri mailako bi sari emango dira, bata 200 eurokoa eta bestea 150 eurokoa, Eibarko Merkataritza Gune Irekiko kide diren saltokietan erabiltzeko. Gainera, eskualde mailako beste sari bat emango da, 250 eurokoa, irabazleak bere herriko saltokietan erabil dezan.

Ekimen honi buruzko informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 943 70 84 08 telefonora dei dezakete edo ingurumena@eibar.eus helbidera idatzi. Udalaren webgunean kontsultatu daitezke bete beharreko baldintzak. Epaimahaiak uztailean zehar ikusi eta baloratuko ditu balkoi eta leiho parte-hartzaileak, lore apaintzeko ederrenak saritzeko.

## Emakume ekintzaileentzat topaketa egingo da

>>> Maiatzaren 27rako #Womenekin emakume ekintzaileen topagunea antolatu du Ekingunek. Saioa 18:00etan hasiko da eta bi modutan eskainiko dute: presentzian, aforoa bete arte (Ermuko Izarra Centren) edo streaming bitartez. Informazio guztia Ekinguneren webgunean dago.







## Erantzukizunak hartzeko ordua

Aurreko barixakuan Eusko Jaurlaritzak Joaquin Beltranen gorpua bilatzeari lagako ziola esan eta gero, mobilizazio jendetsuak egin ziren Zallan, Zaldibarren, Ermuan, Elgetan eta Eibarren. Eta bihar mobilizazio bateratua egingo da Zallan, "Joaquini herriaren omenaldia egiteko eta porrot berri honen ostean berriz ere erantzukizunak eskatzeko". Manifestazioa 18:00etan hasiko da eta Eibartik bertara joan nahi dutenentzat autobusa antolatu dute. Ego Gainetik irtegan da, 16:15ean, eta izena emateko Guridi tabernara joan edo 688826792 telefono zenbakira idatzi daiteke.

Zabortegia hondoratu zenetik 463 egun pasatu eta gero, Joaquin Beltranen gorpuzkiak bilatzeari berehala lagako ziotela adierazi zuen barixakuan Josu Erkoreka Jaurlaritzako Segurtasun sailburuak. Bere berbetan, bilaketa-lanak planifikazio "argi eta zehatza" jarraitu arren, "ez dugu helburua lortu".

Bilaketa-lanak bertan behera lagako zituztela jakin eta berehala azaldu ziren lehen erreakzioak. Zaldibar Argitu herri-plataformatik adierazi zutenenez, "iluntasunak eta informazio faltak hasieratik ezaugarritu dute Zaldibarko zabortegearen inguruko guztia. Hasierako kudeaketa penagarriari, beste kapitulu triste bat gehitzen zaio. Joaquin Beltran ez aurkitzea porrot handia da, senideentzat, lagunentzat edo inguruko herritarrentzat. Kalte sozial eta ekologikotik haratago, zabortegeiak eragindako kalte humanoak hartzen du gaur

protagonismoa, eta sekula itxiko ez den zauria zabalik uzten du. Pertsona bat lur azpian geratzea ezin da erantzukizun politiko gabe geratu, enpresari eta ordezkari politiko batzuen arteko loturak horren nabarmenak direnean. Jaurlaritzak bilaketa lanak bertan behera uztea erabaki badu, une egokia da erabaki horren ondorioak asumitu eta erantzukizunak bere gain hartzeko, behar-koak diren dimisioekin eta kargu-gabetzeekin".

Euskal gehiengo sindikala osatzen duten ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek ere "erantzukizun politikoak argitzea eta azken ondorioetaraino ailegatzea" exijitu zuten, "Joaquin Beltranen bilaketa-lanak etenda ere".

Jaurlaritzak hartutako erabakiarekin oso kritiko azaldu dira sindikatu guztiak, eta zabortegea martxan egon den bitartean egindako kudeaketa ere salatu dute: "Zabortegearen

### Bihar egingo zaio herriaren omenaldia Joaquin Beltrani Zallan eta berriz eskatuko dituzte erantzukizunak

kudeaketa, luizia gertatu zen momentuan eta hondamendiaren aurretik zein ondoren ere, salatu izan dugu euskal gehiengo sindikaletik. Verter Recycling enpresaren jardueran, kontrol eta isun faltaz gain, amiantoaren eta kontrol barik eraman izan diren mota ezberdinetako hondakin arriskutsuen araz kanpoko pilaketak egon dira urteetan zehar, kasu kasu kontrolatu behar zirenak. Jaurlaritzak eta Ingurumen sailak, orduan ere, ez zuten ezer egin. Verter Recycling enpresak erantzukizun zuzena du hildako langileen gainean eta urteetan zehar Zaldibarko zabortegean egon den jarduera klientelar, opako, ez jasagarri eta arriskutsuaren aurrean. Kasu honetan erantzukizuna ezin da eremu pribatura mugatu, eremu publikoak gertatzen ari zenaren gaineko erantzukizun politikoa izan duelako. Arduradun horiek izen-abizenak eta ardura politikoa dituzte". ■





# Zaindu Zaitetz kanpainako azken erosketa-bonuak jarriko dira salgai astelehenean

Eibar Merkataritza Gune Irekiak, Udalarekin elkarlanean, hilaren 10ean abiatutako "Zaindu Zaitetz" erosketa-bonu kanpaina berriak beste urrats bat emango du datorren asteleheneetik aurrera. Hemendik aurrerako erosketa-bonu berriak beltz koloreta-koak izango dira eta bakarrik on-line eskuratu ahal izango dira, asteleheneko goizeko 09:00etatik aurrera, [www.nikeibarrenenerostendot.eus](http://www.nikeibarrenenerostendot.eus) helbidean eta bakarrik Eibarren bizi direnentzat izango dira.

Kanpaina horretan 3.225 bonu jarri dira salgai guztira: 2.100 bonu online jarri ziren salgai eibartarrentzat, 420 beste herri batzuetako biztanleentzat, eta 705 bonu modu presentzianean erosi ahal izan dute orain arte 60 urtetik gorakoek. Bonuak orain arte moduan 40 euroan erosiko dira, 60 euroko erosketa-balioarekin. Gainera, bi erosketa egin ahal izango dira bonu bakoitzarekin, bakoitza 30 eurokoa. NAN bakoitzeko hamar bonoraino eskuratu ahaliko dira.

Kanpaina osasunaren, irudi pertsonalaren eta ekipamendu pertsonalaren arloko establezimenduetan zentratzen da eta alde zurreratik atxiki direnek bakarrik hartzen dute parte. Guztira 81 establezimenuk parte hartzen dute: 45 ekipamendu pertsonalaren



komertzioak dira, 23 irudi pertsonalarenak eta 13 osasunaren arlokoak. Zerrenda lehen aipatutako web-ean kontsultatu daiteke.

Online eskuratutako bonu horiek Eibar Merkataritza Gune Irekian jaso ahal izango dira eguaztenetik, hilaren 26tik, aurrera EMGE-k Isasi kaleko 26. zenbakian duen bulegoan. Eta erosketak ekainaren 30era arte egin ahal izango dira. Aukera polita, beraz, deskontu handiei probetxua ateratzeko hurrengo hilabete eta erdirako.

## ZAINDU ZAITEZ! EROSKETA BONUA

◦ **ONLINE BAKARRIK EROSI DAITEZKE  
[WWW.NIKEIBARRENEROSTENDOT.EUS](http://WWW.NIKEIBARRENEROSTENDOT.EUS)  
WEBGUNEAN.**

◦ **MAIATZAK 24  
GOIZEKO 9:00etatik  
AURRERA.**

◦ **MERKATARITZA,  
IRUDI PERTSONALA  
eta OSASUNerako  
BALIO DUTE.**

◦ **EIBARREN BIZI  
DIRENTZAT BAKARRIK.**

EIBAR  
CENTRO COMERCIAL ABIERTO  
MERKATARITZA GUNE IREKIA

EIBARKO UDALA

30€

ZAINDU ZAITEZ!  
EROSKETA BONUA  
2021/06/30-era arte balio du 00001

30€

BONO COMPRA  
ZAINDU ZAITEZ!  
Válido hasta el 30/06/2021 000



## LGTBIfobiak ez du tokirik Eibarren

Osasunaren Mundu Erakundearen Batzar Orokorrek homosexualitatea buruko gaixotasunen zerrendatik ezabatu zuen 1990. urteko maiatzaren 17an. Horren harira, 2004az geroztik Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen da egun horretan, pertsona homosexual, transexual eta bisexualek jasaten duten diskriminazioa salatzen.

Astelehenean LGTBIfobiaren aurkako mezuek hartu zituzten Euskal Herriko kaleak, baita Eibarkoak ere. Matraka! Neska\* gazte taldeak mobilizazioa egin zuen arratsaldean Untzagan “Zuen fobien aurrean, autodefentsa transmaribibolloa” goiburuekin eta hainbat gaztek hartu zuten parte bertan. “Guk MI7an Homofobia, Lesfobia, Bifobia eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Egunean, aldarria egiten dugu: cisheteronormatibitate honetatik kanpo egoteagatik jasaten dugun indarkeriaren aurka”, adierazi zuten Instagrameko kontuaren bitartez.

Matrakak jakitera eman zuenez, “ez ditugu haien genero arauak eta ezarritako sexualitateak onartuko, ez dugu horregatik sufrituko; ez gara ezkutatu, beldurrik ez dugulako; eta ez gara normatibizatu, asimilazio mota guztien aurrean antolatuta, saretu eta borrokatzen jarraituko dugu”.

Eta zera gehitu zuen: “Ez gara salbuespena, disidentzia gara, eta zuen fobien aurrean autodefentsa transmaribibolloa izango da gure arma!”.

### Latorrizko Gehitu Sariak

Gehitu Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Trans, Bixesual eta Intersexualen elkarteak Latorrizko Gehitu Sariak eman zituen astelehenean. Kontrasari hau urtean zehar bere LGTBIfobia dela eta nabarmendu den pertsona edo erakundeari ematen zaio eta aurten Carmen Calvo Espainiako Gobernuaren lehendakari, “pertsona transen benetako berdintasunaren aldeko lege-aurreproiektua (Trans Legea edo, ofizialki, Trans Pertsonen Berdintasun Erreal eta Eraginkorrerako Legea) izapidetzearen aurka agertu izanagatik” eta Letoniako Gobernuari, “neurrik hartu ez izanagatik herrialdean muturreko LGTB-fobiaren aurrean” ematea erabaki du.

**“Zuen fobien aurrean autodefentsa transmaribibolloa izango da gure arma!”**



Argazkiak: MATRAKA @HAIZEALARI

Trans Legea izan da, hain zuzen ere, astean zehar zeresana eman duen gaia. Izan ere, Espainiako Kongresuak geldiarazi egin du Trans Legearen proposamena. PP eta Vox-en aurkako botoek eta PSOEren abstentzioak (lege-testuak “hutsune juridikoak” dituela argudiatuta) atzera bota dute ERC, Junts, Nueva Canarias, Compromís, CUP eta Más País alderdiek aurkeztutako lege-proposamena. Hala ere, Irene Montero Berdintasun ministroak hitzeman du legea onartu egingo dela eta ekainaren 28rako, LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Egunerako, adostasun bat lortzeko deia egin du.

Alderdi politikoen inguruan ezezik, azken hilabeteotan gizartearen eta mugimendu feministaren inguruan ere eztabaida sortu du gai honek eta iritzi kontrajarriak daude lege honen ekarriko dituen ondorioen inguruan. ■



Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia eta Internetera iristeko gabezia edo arazoak dituzte hainbat herritarrek eta horri deitzen diogu eten edo arrakala digitala. Arrazoiak ezberdinak izan daitezke (ekonomikoak, sozialak, motibaziozkoak, fisikoak...), baina guk adin kontuetan egin dugu azpimarra.

Untzagako jubilatutako etxean jaso gintuzten Felix Elkororibere zentroko presidentek eta Joseba García jubiletzeko informatikaren arduradunak (besteak beste). 2003. urteaz geroztik bertan dago Biztu Eibarko jubilatutako etxeen elkarteak duen informatika gela. “Erdigunean dagoelako eta espazio kontuagatik dago Untzagán”, biek esan digutenez.

Herriko edozein jubilatutako etxeetako kideentzat zabalik dagoen gela da eta Caixa Fundazioaren laguntzarekin ikastaroak eskaintzen dituzte informatika eta teknologia berrien inguruan formakuntza sustatzeko. “Hala ere, Caixak eskaintzen dituen ikastaroetatik kanpo beste zerbaitek irakasteko beharra dagoela ikusten badugu, geure kabuz antolatzen dugu zerbaite. Adibidez, smartphoneak erabiltzeko ikastaroa, gaur egun gehien eskatzen dena”, diosku García.

Jubilatuak eta jubilatutakoak daude, eta azken urteotan alde nabari du Elkororibek. “Lehen, jubilatzen ginenean ez genekien ezer informatikari buruz, baina gaur egun jubilatzen direnek badakite teknologia berriak erabiltzen”, dio presidentek. “2003az geroztik 10 urtez ibili nintzen klaseak ematen eta ez zen arraroa kalkulagailua ere erabiltzen ez zekien jendea ikustea”, esan digu García. Hori kontuan hartuta, erretiratu ondoren teknologia berriak erabiltzen zerotik ikasi duen jendearekin egin dute lan jubiletzeko zibergelan, “baina gauza politak egin ditugu”, diosku irakasleak.

### Bideodeien beharra

Pandemia hasi zenean zibergelaren jarduna eten egin zen,

# Eten digitala: sistemaren errorea

Mundu berri bat hedatzen ari da ikusi eta ukitu ahal dugunetik aparte: mundu digitala. Gailu elektronikoen bitartez bizi gaitezke bertan eta, horrek erabiltzen jakin ezean, zaila da teknologia berriek ahalbidetu duten mundu horretan bizitzea. Berrikuntzak abiadura handiarekin datoz eta asko ezin diote erritmoa jarraitu. Orduan sortzen da eten digitala, gizartean arrakala sortzen duen arazo modernoa.



baina agerian laga zuen jubilatutako teknologia berrien inguruan oraindik zenbat ikasi behar duten. “Egun batetik bestera etxean sartu gintuzten eta bideodeien, bilera telematikoen eta horrelako baliabideen beharra izan genuen”, García dioenez. “Gauza hauek ondo eginen

ikasi behar dugu eta horrelako gaien inguruan ikastaroak ematea da gure asmoa”.

Elkororibek, oster, “aditua” dela dio. “Azken aldia askotan egin ditut bideodeiak. Horrelako sasoi batean abantaila da, baina pena da aurrez aurrekoak duen gertutasuna galtzea.

Triste da”, diosku. Hala ere, abantailak ere baditu García-ren ustez. “Adibidez, Donostian dugun bilera batengatik dugu goiz guztia galdu behar, telematikoki egiten dugu eta kitto”.

Pandemiak, bestetik, zaharren inguruan ‘bilatzen ez den bakardadea’ jarri du agerian eta hori gaitziteza erronka da Elkororiberentzat. “Pandemian zehar Felixek mila bideodei eta dei egin ditu etxetik irten ezinda egon diren jubilatuekin”, aitortu digu García. Izan ere, erronka horretan teknologia berriek demaseko laguntza eman dezakete.

### Zahartze aktiboa

Iazko martxotik jubilatuek ezin izan dute zibergela erabili, baina García ordenagailu bat jarri du jubilatutako etxeko tabernan, kontsultak egiteko eta saltsan ibiltzeko. Dena dela, irailetik aurrera jubiletzearen ohiko martxarekin hasi nahi dute, “nolabaiteko normaltasunera itzuli”, eta zibergela berriz ere ireki.

Aldaketak datoz Untzagako jubilatutako etxera, obrak egingo dituztelako. “Beheko pisuan Pegora antzeko bat jarriko dugu, baina pertsona nagusiei zuzendutakoa”, diosku García. “Adibidez, IMSERSOko papel bat behar badute, han lagunduko diegu lortzen; edo bestelako izapideak nola egin azalduko diegu, besteak beste”.

Zerbitzu hori lehen pisuko bulego batean eskaintzen dute gaur egun eta, beheko pisura eramango dutenez, goian toki gehiago egongo da libre. “Bideobilerak eta bideokonferentziak egiteko zerbitzua eskainiko dugu libre geratuko den tokian”, azaldu digu García.

Eibarko jubilatuek duten filosofiari jarraituz, zahartze aktiboa sustatzen da jubilatutako etxeetan eta jarduerak ugari egiten dituzte martxa beteangoetako. “Horretarako, berebizikoa da gure inguruan jende gaztea egotea gauza berriak irakasteko. Josebak demaseko laguntza eskaintzen digu. Hori ezin da diruarekin ordaindu”, diosku 80



Herriko jubilatuek Untzagako egoitzan dute teknologia berrien inguruan ikastaroak jasotzeko aukera. EKHI BELAR

urtetik gorakoentzako bizitza aktiboa sustatzeko programak jarriko dituzte martxan, ikastaro gehiago emango dituzte... Ekintzarik ez da faltako herriko jubilatuentzat. Eta nahiz eta gaur egun horrelako egitasmoe-tan informatikak ez duen presentzia handirik, García esan digu teknologia aprobetxatzeko moduak ikertzen dihardutela.

### KZgunea, IKTen ezagutza bermatzen

KZgunea 2001ean jaio zen arrakala digitala gainditzeko asmoz, alegia, Internet eta teknologia berriak herritar guztien eskura jartzeko. “KZgunean konpromisoa hartu dugu herritarrek IKTen ezagutzen aurrera egiteko”, esan digu Christian Hidalgo Eibarko KZguneko dinamizatzaileak.

Doako laguntza eskaintzen diete gaiaren inguruan laguntza behar duten herritarrei. “Gure zerbitzuak formakuntzan oinarritzen dira, aurrez aurreko, urruneko eta bideo-konferentzia bidezko ikastaroen eta tutoretzen bidez”, dio dinamizatzaileak. “Eskaintzen dugun prestakuntzak gaur egun hain

beharrezkoak diren teknologia berrien hainbat eremu hartzen ditu barne: ofimatika, irudia eta bideoa, produktibitatea... Horrela, erabiltzaileak hainbat gaitan trebatzen dira eta, ondorioz, eremu horretan autosufizienteak izateko gaitasuna lortzen dute”, gehitzen du.

Hildagok esan digu gero eta jende gehiago joaten dela KZgunera, “gero eta beharrezkoagoa delako ordenagailu edo smartphone bat erabiltzen jakitea edozein gauza egiteko (izapideak betetzea, txandak hartzea...)”. Horrelako gailuak oso hedatuta daude, baina dinamizatzaileak esan digunez: “oraindik pertsona batzuek ez dakite teknologia berriak erabiltzen”.

Bi profiletako jendea joaten da KZgunera. “Batetik, 55 eta

64 urte artekoak daude. IKTen inguruan ikasi nahi duten pertsonak izaten dira, lanerako edo eguneroko bizitzan behar dutelako (adibidez, seme-alabei etxerako lanekin laguntzeko). Eta bestetik, aurrez jubilatua edo duela gutxi erretiratutako jendea dago. Teknologia berrien inguruan atzean geratu nahi ez duten pertsonak izaten dira, eta, denbora gehiago dutenez, guregana etortzen dira formakuntza jasotzera”.

Batzuek badute nolabaiteko ezagutza, baina askorentzat mundu berri bat aurkitzea da. Hala ere, jendea KZgunetik pozik irteten dela aitortu digu Hidalgo. “Gure erabiltzaileek ikastaroei jarri dieten noten batzaz bestekoa 8,6 izan da. Oso adierazle ona da hori”, diosku. “Gainera, pertsona gehienek errepikatu egiten dute. Hau da, ikastaroak egin eta oinarriak eskuratzen dituzten neurrian, ikastaroa berriz egiten dute gaia hobeto ezagutzeko eta, bestela, maila altuagoko ikastaroetan ematen dute izena”.

### Etengabeko formakuntza

Iazko martxoan KZguneak

ateak itxi behar izan zituen konfinamenduaren ondorioz, eta uztailen zabaldu zituen berriz. Hala ere, erabiltzaileak ez ziren zerbitzurik gabe geratu, etxetik jarraitu ahal izan zutelako. “Tutoretzak eskaintzen genituen jendeari etxera deituz, bideo-dei bitartez ikastaroak ematen genituen, eta baita urruneko formakuntza ere”, diosku dinamizatzaileak.

Pandemiak KZgunearen jardueran eragin du (jende gutxiago sartu daiteke gelan, telematikoki ikasi daiteke...), baina ez hori bakarrik, teknologia berriei dagokionez gizartearen ohiturak ere aldatu dira. Horrela, gaia ondo menperatzen ez dutenak hainbat arlotan joko zkanpo geratzeko arriskua dago. “Pandemiaren ondorioz konfinatuta egon garen hilabete hauetan inoiz baino nabarmenagoa izan da eten digitala”, Hidalgo ustez. “Bankuko edo administrazio publikoetako izapideak telematikoki egitea, bideo-konferentzia bidezko lagunekin eta senideekin hitz egitea eta erosketak online egitea, besteak beste, eguneroko ekintzak dira, eta behar diren ezagutzak ez dituen

**“Pandemian zehar inoiz baino nabarmenagoa izan da eten digitala”**





KZGuneak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu eten digitalari aurre egiteko. Argazkian Christian Hidalgo, Eibarko zentroko dinamizatzailea. EKHI BELAR

pertsona batek ezin ditu egin. Hori dela eta, pertsona horiek desabantailan sentitu daitezke edo gizarte-bazterketan erortzeko arriskua dute”.

Eta nortzuk dira, batez ere, eten digitala igartzen duten pertsonak? “Normalean, ingurune digital horren barruan

ez dauden pertsonak uste dute teknologia berriak ez direla beharrezkoak eta nahitaez erabili behar dituztenean zailtasun handiak izaten dituzte moldatzeko. Gainera, teknologiak modu esponentzialean egiten du aurrera eta, horregatik, herritarren beharrak al-

datu egiten dira”, Hildagoren iritziz.

Dinamizatzaileak esan digu aurreko urteetan KZgunearen ikastaroak ordenagailuan zentratu izan direla, baina gaur egun askok eskatzen dituztela smartphone eta tabletera bideratutako ikastaroak. “Tek-

nologia berrien arloko formakuntzak ez du hasiera eta amaierarik. Egunero sortzen dira aplikazio berriak, programak, funtzionaltasunak, gadgetak... eta horrek alde aurreko prestakuntza eskatzen du natio digitalak ez diren pertsonentzat”, bere iritziz.

**FUNEUSKADI**  
Grupo Asistea

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeuskadi

**TANATORIO EIBAR**

**TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
**www.funeuskadi.com**

**Eibar:**  
Otaola, 27

**Eibarko bulegoa:**  
Bidebarrieta, 20

**Elgoibar:**  
Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

**Ermuako bulegoa:**  
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**centro médico eibar**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
**Orbeako dorreak / 1. solairua**  
**☎ 943 12 02 00 – 943 12 02 04**

- Análisi Klinikoak
- Dermatologia
- Dietetika / Nutrizioa
- Erizaintza
- Familia medikua
- Fisioterapia
- Foto-depilazio Unitatea
- Kardiologia
- Kirurgia
- Kirurgia baskularra
- Koloproktologia
- Neurofisiologia
- Otorrinolaringologia
- Psikologia
- Radiologia
- Traumatologia
- Urologia

## Kirol-posterrak lantzen hasi dira eskoletan

Aurreko egunetan banatu ziren Eibarko kirol-instalazio, taberna eta hezkuntza-zentroetan Eibar Fundazioak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek elkarlanean egin dituzten kirol-posterrak. Aurreko bi asteetan aldizkari honetan bertan ere argitaratu genituen. Herriko hainbat eskolatan hasi dira honezkero horma-irudi horiek ikasleekin lantzen eta horren lekuko hainbat argazki ailegatu zaizkigu. Euskara lantzeko modu polita eta erakargarria dela diote eskoletatik, eta ikastetxe batzuetan, gainera, “ezagutzen ez genituen kirolen inguruko informazioa bilatu eta idatziz jaso dugu, ikasleek egiten dituzten kirolei buruz hitz egin dugu, kirol horiek egiteko behar diren erropak jantzi ditugu, kirol ezberdinak praktikan jarri ditugu...”.

“Foballa” izeneko horma-irudian futboleko jokaldi, jokalaria eta gehien erabili ohi diren berbak agertzen dira, Eibarko euskaraz eta gazteleraz; bestean, berriz, “Kirolak” izenekoan, kirol ezberdinak azaltzen dira eta euren izenak euskaraz eta gazteleraz.

Eskuman Aldatze eta Arrateko Andra Mari ikastetxeko ikasleak, eta behean La Salle, Urkizu eta Amañakoak.



## Banatu dira Ipurterre lehiaketako sariak



Aste honetako eguaztenean eman ziren Ipurterre Ipuin eta Gutun lehiaketako sariak. Eibarko ikastetxeekin elkarlanean ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen lehiaketak XXVII. edizioa bete du aurten. LHko eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketa da eta aurten 1.000 ipuin inguru jaso dira.

Irabazleei dagokienez, hemen duzue zerrenda:

LH1-2 mailan irabazlea Paula Diez izan da, La Salle Isasiko ikaslea; LH 3-4 mailan Oihenart Agirre, hori ere La Salle Isasikoa; LH 5-6 mailari dagokionez saria Juan Antonio Mogel ikastolako Ainhoa

Egurrolak eraman du; DBHko 1-2 mailan gutunik onena Leire Iturriartek idatzi du eta DBH 3-4 mailan, berriz, irabazlea Miren Urizar izan da. DBHko irabazle biek ikasten dute La Salle Azitain ikastetxean.

Salbuespenak albuespen Ipurterre lehiaketa sortu zenetik urtero egin izan da sari-banaketa Unibertsitate Laborean. Bizi dugun egoerak ez du horretarako aukerarik lagatzen eta aurten Arrate Kultur Elkartearen banatu dira sariak. Ekitaldia girozko Tor magoa etorri zen beste behin ere Eibarrera, eta aho bete hortz utzi zuen bat baino gehiago bere trikimailuekin.





Armeria Eskolakoek milaka kilometrotara dauden ikasleekin elkarlanean egin dute proiektua.

## Barbakoak eibartarrak Herbehereetan eta Finlandian

Armeria Eskolako Diseinua Fabrikazio Mekanikoan zikloko 20 ikaslek erronka mamitsua gauzatu dute: barbakoak diseinatzea. “Pandemiaren ondorioz hainbat muga ezarri dituztenez, erronka birtualak egitea sustatu dugu”, kontatu digu Enaitz Eizagirre irakasleak. Horrela, beste eskola batzuekin harremanetan jarri ziren, Herbehereetako Horizon eta Finlandiako Gradia eskolekin hain zuzen ere, eta proiektua martxan jarri zuten, eibartarrek diseinatutako barbakoak euren fabriketan ekoizteko.

Diseinua Fabrikazio Mekanikoan goi-mailako zikloko ikasleak 3-4 laguneko bost taldetan banatu ziren eta bakoitzak bere barbakoak diseinatu du, nahi izan duen moduan. “Herbehereetan eta Finlandian barbakoak bana fabrikatzea da asmoa”, irakasleak esan digunez, eta eibartarrek bideoak sortu dituzte euren lanak promozionatzeko eta, ondorioz, aukeratuak izateko. “Planoak nolakoak diren azaltzen dituzte, euren barbakoak dituzten abantailak...”, dio irakasleak. “Hala ere, oraindik ez dakigu noiz hartuko duten erabakia,

Herbehereetan konfinatuta daudelako eta Finlandian ikasurte amaieran jarriko direlako martxan”, Eizagirre berbetan.


### Ikasleak motibatuta

Irakaslearen ustez mota horretako erronkak oso motibagarriak dira ikasleentzat eta asko ikasten dute zerbait erakargarria egiten duten bitartean. “Horrelakoetan ikasleek beste konpromiso bat hartzen dute. Bezero batentzat egiten dute lan, ez irakasleentzat, eta beste modu batean hartzen dute”, Eizagirrearen ustez.



Bost barbakoak prestatu dituzte eta bosten diseinua ezberdina da. Izan ere, libre izan dira nahi zutena diseinatzeko. “Pena izan da beste eskolakoekin komunikazio arazoak izan ditugula. Ez dute guk bezala funtzionatzen eta denbora gehiago pasatzen dute enpresetan”, diosku irakasleak.

Zer hobeago komunikazio hori barbakoak baten inguruan konpontzea baino?



# “Jendaurrean emanaldiak egitea gustatuko litzaiguke, herriko jaietan, esaterako”

Jon Escolar (ESCO), Ander Blanco (A.WHITE) eta Xune Breña (RENK C.A) gazteek “Caras falsas” izenburupean abesti eta bideoklipa argitaratu berri dute. “The north school” kolektiboaren kide dira hiru artistak eta hainbat plataformatan dago eskuragarri haien single berria.

## Zein musika-genero jorratzen duzue?

Momentu honetan musika-estilo ezberdinak lantzen ari gara, baina esan daiteke batik bat Rap-Hip Hop-a egiten dugula. Estudioan daukagun produktoreak, Andonik (Ashbeats), hainbat estilo lantzerantz gaitu, betiere idazten dugunak letra ona baldin badauka.

## Zergatik eta noiz hasi zineten musikaren munduan?

Ander: 2006. urtean hasi nintzen rapa abesten zuten nire auzokideen kontzertuetara joaten, eta ohartu nintzen niri ere asko gustatzen zitzaidala egiten zutena. Beraz, nire barrua husteko erreminta gisa hasi nintzen idazten eta abesten. Psikologoaren funtzio bera egiten zidanez, ez nuen inoren beharrik.

Xune: Nire amak beti entzun izan duenez rap-a, niri nahitaez tokatu zait txikitatik genero hori barneratzea. 2009an ekin nion nire abestiak sortzeari, eskolan nongoen bitartean, eta, poliki-poliki, seriotasuna eta profesionaltasuna eman nion egiten nuenari.

Jon: Nahiko gazte nintzela hasi nintzen batailak entzuten, baina ni neu abestiak sortzen 2016an hasi nintzen, nire amama hil ostean, lasaitasun bide moduan.

## Zer da “The north school”?

2015. urtean sortu zen kolektiboari deitzen diogu horrela. Une honetan 9 kidek osatzen dugu taldea: M.rek, Esco, Renk C.A, Drj, A.white, Emeke, Katxo, Deskonozido eta Kill CBD. Gainera, produktorea den AshBeats ere egoten da gurekin.

## “Caras falsas” abestia argitaratu berri duzue eta horrekin batera bideoklipa. Lehen aldia da edo aurretik ere egin duzue lanen bat?

Ez da gauza berria, denbora asko daramagu abestiak zein bideoklipak egiten. Hala ere, egia da oraingoan modu profesionalagoan egin dugula, Madrileran joan baikara grabaketa egitera. Ez dugu atzean geratu nahi eta kalitatea hobetu nahi diegu sortzen ditugun produktuei.

## Zuek idatzi duzue abestiaren letra? Inolako baldintzarik betetzen duzue (errima, silaba kopurua...) edo estilo librea jarraitzen duzue?

Guk geuk idazten ditugu letrak, bakoitzak bereak. Bakoitzak nahi duen moduan idazten duen arren, nahiko oinarritzkoa da egiten duzuenak errima bat jarraitzea, zentzua izan dezan. Ezin da guztiz modu librean idatzi.



## # RENK C.A, A.WHITE ETA ESCO Artistak #

### Inolako laguntza ekonomikorik jasotzen duzue egiten duzuen aurrera eraman ahal izateko?

Ez dugu inongo laguntzarik jasotzen; gaur egun oso zaila da horrelakoak eskuratzea. Normalean guk ordaintzen dugu, geure diruarekin. Hala ere, noizbehinka ingurukoen laguntza eta babesa jasotzen dugu eta dohako bideoklip eta abestiak ere egin izan ditugu esparruan aditua den jendeak lagunduta. Oso urrutira joan gabe, SOBA, artistei laguntzeko sortutako taldea, bidelagun izan dugu zenbaitetan, eta eskertzekoa da.

### Nola bizi izan duzue abestia argitaratu aurretiko prozesu osoa?

Hirurok entseatzen geunden arratsalde batean sortu zen ideia; izan ere, produktoreak atzeko oinarri musikala jarri zigun eta abesten hasi ginen. Itxura ona hartu genion egun horretan irtendakoari eta aurrera egitea erabaki genuen eta Madrileran abiatu ginen grabaketa egitera. Ezinbestekotzat jotzen dugu gaur egun abestiei bideoklipa egitea, ohartu gare-

lako jendeak entzuten soilik baino, nahiago duela abestia irudiekin lagunduta ikusi. Jendeak arreta gehiago ipintzen dio ikusten duenari, entzuten duenari baino. Tristeia da, gure helburua abestien letrarekin emozioak transmititzea delako, baina kontsumitzaileen egungo egoera hori da.

### Bideoklipetan letran esandakoa islatzen saiatu zarete?

Abestiaren letrak emozioak transmititzen dituen moduan, irudiek ere gauza bera egiten dute. Hori dela eta, gure bideoklipen bitartez letrei indar handiagoa ematen saiatzen gara, eta helarazi nahi dugun horretan enfasia egiten dugu. Adibide bat jartzearen, abesti tristeia egiten badugu, bideoan ere tristura transmitituko dugu, alegia, ahotsa eta irudia bat etorri eta elkarren osagarri izan behar dira. “Caras falsas” abestia desamodioan, traizioan eta faltsukerian dago oinarrituta.

### Non entzun eta ikusi daiteke zuen abestia?

Plataforma guztietan egongo da gure abestia eskuragarri.





Honako QR kodeak, adibidez, YouTubeko kanalera bideratzen zaitu.

### Gaur egun rap-a gutxietsita dagoen generoa omen da. Zer deritzozue?

Jendeak joera dauka ikusten duen guztia epaitzeko eta estereotipo asko dago. Pertsona itxia bazara eta ez badizkiozu musika berria ezagutzeari atea zabaltzen, ez dituzu inoiz benetan pertsonak sakonki ezagutu. Guk musika-estilo guztiak errespetatzen ditugu, baina egia da askok eta askok ez dakitela benetan entzuten duten musikak zein letra daukan atzean, esaterako, reggaetoiak. Egia da rap-ak eduki esplizitu asko daukala hiztegi eta lexiko alde-

**“Ez dugu atzean geratu nahi eta kalitatea hobetu nahi diegu sortzen ditugun produktuei”**

rik, baina zenbait muga errespetatzen ditugu gure letretan.

**Baldintza moduan euskaraz abesteko esango balizute, zein erantzun emango zenuket?”**

**“Ez dugu euskaraz abesten horrek asko mugatzen duelako xede-publikoa”**

Ondo irudituko litzaiguke. Egia esan, gutako batzuk dagoeneko baditugu letra batzuk euskaraz idatzita. Hala ere, gure egunerokoan ez dugu euskaraz abesten horrek asko mugatzen duelako xede-publi-

Bideoklipa ikusteko



koa, askoz ere jende gutxiagorengana iritsi gaitzkeelako. Hala ere, egia da euskaraz idatzitakoak sakontasun askoz ere handiagoa duela; aukera polita izan daiteke, zalantzarik gabe.



**• tartak**  
**• enkarguak**  
**etxera**


Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73



LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

*Enkarguak etxera*



Itziar Sapsootham  
Itziar Sapsootham

## Agur eta ohore Alfako ikastolari

Laster, Alfako eskola eta ondoren ikastola izan zenaren eraikina eraitsiko dute. Iazko udaberrian hastekoak ziren lanak pandemiak geldiarazi zituen. Eraikina Hezkuntza Sailarena da eta haiek erabaki dute ez dituela beharrezkoak diren segurtasun baldintzak betetzen. Beraz, hobe dena botatzea. Espazio horretan zer egongo den adostu gabe. Eraikina birgaitu eta beste erabilpen bat emateko aukerak baloratu gabe.

**“Eibarko paisaiaren parte izango ez dela jakiteak asko tristetzen nau. Kolektibo handi baten oroitzapenean grabatua geratuko dela jakiteak, ordea, zeozer laguntzen du”**

Alfako kooperatibak, bere langileen seme-alabentzat eraiki zuen eskola 1960 inguruan eta 1977. urtera arte alfisten esku egon zen. Urte batzuetara, Eibarren indar handia hartzen ari zen Ikastolaren egoitzetako bat bihurtu zen. Nere umetako Eibar zahar eta industrialaren postalaren oroitzapen gehienak Alfako ikastolarekin lotutakoak dira: Dos de Mayon lagunekin elkartzeari; Ardantzako trenbideko pasabideko barrerak igotzeko zain egotea, eta gaztetoagoak ginenean barrera hori azpitik pasatzea, horrek ausartagoak egiten gintuelako; Mendizabal, Charola y Anitua eta Bascaran Hermanos tailerren hotsak eta burdin-usaina; trenbide-alboko baserria; bi aldapa luzeak; andereño Maria, Mari Tere eta Maria Elena; jolasorduak eta Aldatzekoekin tirabirak; klasera bueltatu behar ginela abisatzen zigun sirena... eta nola ez, gelakideak! Talde ederra ginen 1986koak (besarkada haundi bat denei)!

Ondare historiko, kultural eta, zergatik ez, emozionalaren parte den elementu arkitektoniko honen galeraren eta desagertzearen atzean, administrazio publikoen utzikeria dago eta, beste behin, herritarrok ezer egin ez dezakegunaren sentsazioarekin geratu beharko dugu. Eraikinaren albo batean ALFA-ko hizki gorri mitikoak dituen errektangulu itxurako bloke txuri hori Eibarko paisaiaren parte izango ez dela jakiteak asko tristetzen nau. Kolektibo handi baten oroitzapenean grabatua geratuko dela jakiteak ordea, zeozer laguntzen du. Edo hori pentsatu nahiko nuke, hain baita iragankorra memoria...



Ainhoa Aldazabal  
Ainhoa Aldazabal

## Rocio Carrasco Mohedano

Rocio Jurado eta Pedro Carrascoren alaba. Rocio Flores eta David Floresen ama. Antonio David Floresen emazte ohia. Fidel Albiacen gaur egungo emazte. Rociito deitzen diote. Rocio Carrasco Mohedano da.

Entzutetsu bihurtu da azken asteotan bere testigantza eskainiz egin duen dokumentala. Ikusi duzue? Nik oso-osorik. Eman dituzten minutu guztiak. Eta baita jarraitu dioten tertulia eta eztabaidak ere. Begirik kendu ezinda eta hurrengo kapituluaren zain pasa ditut egunak. Rocio Carrasco Mohedanori begira.

**“Bizitakoen ostean ezer galtzekorik ez duenaren ahotsa da”**

Bere senar ohiak emandako tratu txarrak eta honek eragindako mina kontatzen ditu bertan. Tratu txar fisiko, psikologiko, sinboliko eta emozionala. Banatu osteko iskanbila publikoa salatu du protagonistak: alde batetik, Antonio David Floresen jarrera oldarkor eta gezurtia. Bestetik, prentsa arrosaren papera: gizonak orain arte kontatu duen istoria entzun, zabaldu, finkatu eta egi bakar bihurtu izana.

Hogei urte luze pasa dira banatu zirenetik. Hogei urte luzez jardun du tipoak poltsikoak diruz betetzen. Emazte ohiaren kolkotik aberasten. Inpunitate osoz jardun du. Seme-alabak bereganatu ditu. Eta gehienek sinistu egin diote.

Hogei urte luzez egon da Rocio Carrasco Mohedano isilik. Epaitzegietara jo du eta prozesua motelegia izan da. Seme-alabak galdu ditu. Prozesu terapeutikoan egon da ordutik. Bere buruaz beste egiten ahalegindu da. Askok eta askok ez diote sinisten. Orain(dik).

Apurtuta, haserre, minduta, amorratuta, lotsatuta, triste eta galduta agertu da telebistan. Zoro eta historiko batzuen begietara. Eta horregatik gustatu zait, eskertu dut. Bizitakoen ostean ezer galtzekorik ez duenaren ahotsa baita.

Eta ez hori bakarrik. Tarteka harro, pozik, umoretsu, ausart eta indartsu ere ikusi dut, barrezka. Bizi izan duenarekin gehienek espero ez duten jarrera erakutsiz. Zoriontsu izateko aukera galduko ez balu bezala. Bizirik. Eskerrak.

Dokumentalak hautsak harrotu ditu. Kazetari eta kolaboratzaileak posizio politiko bat hartzera behartu ditu. Eta, bai, delako telebista kate pribatuaren egitura patriarkala aldatu ez bada ere, zenbat belarri eta burutara iritsi den begirada feminista ikaragarria da.

Rociito deitu diote orain arte. Txikigarriarekin zuzendu zaizkio 44 urteko andra honi. Eta, ez. Rocio Carrasco Mohedanok handitasuna erakutsi du. Ausarta izan da. Eskuzabala. Heldua eta zuzena. Aitzakiarik gabe eta hemendik aurrera, Rocio Carrasco Mohedano.





# etxe-apainketa gehigarria

2021eko maiatzak 21

# Udaberria, eraldatzeko sasoia

Zure etxe barruan urteko sasoi honetako poza, bizitasuna eta eraldaketa sentitzea nahi baduzu, hurrengo lerroetan ekarri dizkizugun joerei erreparatzera gonbidatzen zaitugu.

## Zuntz naturalak

Banbua, jutea, sisala, kalamua... bezalako materialak erabiltzeak ukitu naturalagoa, freskoagoa eta atseginagoa emango dio zure dekorazioari.

Non erabil ditzakezu? Altzarietan, loreontzietan, saskietan, kuxinetan, alfombretan, estoreetan, pufetan eta baita lanparetan ere. Oro har, zuntz naturalak konbinatzen errazak diren lur tonuetan datoz, eta gainera, espazioei berotasun handia ematen die. Tonu horiek gaur egun joera direla aprobetxatu eta ateraiezu probetxurik handiena zure dekorazioan.

## Naturaren koloreak

Udaberrian kolore leunak edo argitsuak asko erabiltzen dira, beraz, pastelak eta neutroak probatu ditzakezu.

Kolore biziak gustatzen bazaizkizu, ez dago arazorik. Aukeratu itzazu udaberriaren ezaugarri den eta naturarekin zuzenean lotzen den alaitasuna transmititzen dutenak: horiak, laranja, arrosak eta, batez ere, urdinak eta berdeak.

## Landareak eta lore-konponketak

Landareak eta loreak udaberriko sinbolo klasikoak dira, horregatik ezin dira falta zure etxean. Aukeratu zure landare gustukoak eta gozatu tenperaturak gora egin ahala nola hazten eta ederrak jartzen diren ikusten.

Modurik naturalenean, buztinezko loreontzi politetan, zuntzezko saskietan, egurrezko erretilu batean bilduta mahai baten gainean edo gelaren bazter batean. Ematen duten berde hori 2021eko udaberrian dekorazio-joerak dakarren koloreetako batekin lotzen da.



**CASAMANIA**  
Erreformak eta altzariak

San Juan, 16 - ac  
943 204 259  
www.casamaniaculture.com  
info@casamaniaculture.com

25  
URTE  
zuekin



Birjiñape, 1  
**JAINAGA**  
943 702199

GORTINAK / ALFONBRAK / MOKETAK  
ERRAILAK / TAPIZERIA / ...



Apaintzeko beste aukera bat urtaroko loreak dira. Gustuko badituzu, sorta bat sortzeko erabil ditzakezu, eta zure etxeko txokoei kolorea, freskotasuna eta usaina eman. Zer moduz egongo lirateke liburutegi, erdiko mahai edo txoko batean?

### Estilo partekatua

Kontzeptu honek udaberriko denboraldirako espazioen dekorazioa markatzen du, barrukoa zein kanpukoa. Dekorazioarekin jolastu behar da, etxe bateko inguruneetan luzatu eta batasuna sortzeko ideiarekin. Espazioak erabilera anitzekoak izateko joera ikusita eta, ondorioz, balio anitzeko espazioak sortzeko joera, mahai bat lanekoa eta jangelakoa izatea, sukaldea egongelara irekitzea... garrantzitsua da dekorazio-estiloak osotasunean proiektatzea.

### Argi natural asko

Udaberriak eguraldi onaren hasiera iragartzen du. Berotasun sentazio hori zure etxean sentitzea nahi baduzu, garbitu ondo beirak eta eduki garbi leihoak, argi naturala sar dadin. Eta neguan gortina lodi eta astunak bazenituen, gogoan izan estore edo bisiloz aldatzea, arinagoak izan daitezen eta hainbeste itxaroten ari ginen eguzki-izpiak igarotzea ahalbidetu dezaten.



### Artisau-piezak

Eskuz egindako piezek indar handia hartu dute dekorazioan eta udaberri hau ez da salbuespena izango.

Material erabiliaren artean buztina eta zeramika testurizatu daude, piezei akabera inperfektua baina ederra ematen dietenak.

Ez badakizu zein artisautza-pieza aukeratu, hemen utziko dizkizugu ideia batzuk: pitxerrak, ganderailuak, katiluak edo kolore alaiko edo lore edo landare-diseinudun baxera bat.

Etxeak, bulegoak, tailerrak...

Kalitatezko lanak

Konfiantzazko zerbitzua

Irazabal  
eraikuntzak erreformak igeltzeritza

**Idea bat duzu?**  
Zure ametsetako proiektua gero eta gertuago  
Epeak beteaz, lasaitasunez, eta segurtasunez.

**irazabal**

943 120 108    www.irazabal.net    **eraikuntzak erreformak igeltzeritza**    Azitain industrialdea, 3-H, EIBAR



**Terrazak: bakea transmititzen duten tonu neutroak**

Izan ere, erlaxatu eta deskonektatu nahi baduzu, onena terraza tonu neutroetan apaintzea da. Beigeak zuriari falta zaion berotasun hori dauka, eta atsegina eta denboragabea da. Eta beti modan dagoen kolorea bada ere, terrazen dekorazioan estiloz eta dotoreziaz agertzen da udaberri honetan. Aurten terrazetan ikusiko den beste joera bat barrutik kanpora zabalduko diren espazio irekiak sortzea da, bi eremuetarako balioko duten altzariak erabiliz. Joera hori etxeko eremu guztietan giro arinak, funtzio anitzekoak eta oso lasaiak sortzeko beharrari dagokio.

Oro har, gure etxeetako kanpoko espazioak osatzen dituzten lorategiak edo terrazak jolas-, gizarte- eta erlaxazio-espazio gisa erabiltzen dira. Alderdi horri esker, argi-tonalitate beroak erabiltzea funtsezkoa da leku horiek transmititu behar diguten bakea eta lasaitasun-sentsazioa lortzeko.

Gero eta apustu handiagoa egiten da eguzki-argia energia-iturri gisa erabiltzen duten lanparen alde. Era horretako lanpara gehienek argi-sentsoreak dituzte, eguzki-argia nahikoa ez denean piztu daitezen; gainontzeko egunetan eguzkiaren argiarekin kargatzen dira.



**eraieder**  
since 2007

**FATXADA ETA  
TEILATUEN  
BIRGAIKUNTZA**

**BARNE-ERREFORMAK**

**GREMIOEN  
KOORDINAZIOA**



**ERAIEDER, S.L.**

**Matsaria, 10**

**Tf. 943 200 453**

**info@eraieder.es**

**www.eraieder.es**



## VENTANAS ONA<sup>®</sup> LEIHOAK

Bidebarrieta, 28 - behea Tel. eta Faxa: 943 20 28 28  
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415  
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com



AROTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA  
KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA



## / 1964 estudio



proiektuak interiorismoa altzariak  
jardiñeta, 14 tf. 656756485 www.estudio1964.com

648035528    
info@klauseibar.com  
www.klauseibar.com

denda  
proiektuak  
dekorazioa  
erreformak



**klauus** Estaziño, 3

**F. PASCUAL**  
AROTEGIA - EBANISTERIA  
SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK

Arane, 6  
EIBAR  
943 20 61 64  
943 17 19 73



**ARMAIRU  
ENPOTRATUAK**

- Zur mota guztietan  
- Zure dekoraziora  
egokitutako soluzioak

**SUKALDE  
ALTZARIAK**

- Fabrikatzaileak gara  
- 30 urtetik gorako  
esperientzia

[www.cocinaspascual.com](http://www.cocinaspascual.com)



Zubiaurre, 36-38  
ERMUA  
943 17 68 28



**VIRGINIA  
PASCUAL**



### Sukalde itxia edo irekia

Sukalde itxi baten aldean sukalde ireki batek duen beste abantaila bat argia giroetan zehar banatzen dela da. Errazagoa da argia aprobetxatzea. Argitasunak espazioa gustagarriago eta erosoago bihurtzen du.

Sukalde irekia, sukalde modernoa, landa-sukaldea edo tradizionala izan, ahal den guztietan jantokiarekin komunikatuta egongo da. Izan ere, horrek beste abantaila gehigarri bat ere badu, sukaldetik mahaira joateko eta hura zerbitzatu eta presatzeko erraztasuna, alegia.

Sukalde irekiaren beste abantaila bat jarduera partekatea da. Errazagoa da ezer ez galtzea. Sukaldaritza parte-hartzaileagoa da eta familiaren bizitza eta komunikazioa errazten dira. Sukaldean egotea janaria prestatzen eta jangelan daudenekin solasean aritzea edo egongelan merienda egiten duten haur txikiak zaintzea.

Sukalde txikienek, barrukoek edo leihorik gabekoek, gela handiago batera irekitzen direnean irabazi egiten dute eta, normalean, leiho bat izaten dute. Horrela, errazagoa da korronteak eta aireztapena sortzea, sukaldean sortzen diren usainak ezabatzen laguntzeko.





## IZARRAITZ

### LEIHOAK-ERREFORMAK



Leihoak - Pertsianak - Bainuak  
Toldoak - Manparak - Ateak  
Parketa - Era guztiko erreformak  
Peoren konponketa...

Dutxa  
berria

Bidebarrieta, 48

Tel. 943 25 60 26

EIBAR (SONIA)

ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com



Rosario, 15

ELGOIBAR

605 71 31 68

943 74 40 19

BARNE-ARKITEKTURA

(PROIEKTUAK / ERREFORMAK)

Interiorismo eta Dekorazio Estudioa



## ESTUDIOS

## ARRILLAGA



Sukalde ireki batek itxitako sukaldearen aldean dituen desabantailak zerrendatu baino lehen, kontuan izan behar duzu tarteko soluzio batzuk argiaz edo zabaltasunaz gozatzeko aukera ematen dutela, baina mugekin. Beirazko itxiturak egokiak dira horretarako. "Irlek" edo "penintsulek" bisualki bakarrik mugatzen duten bitartean, era horretako aukera horma garden bat bihurtzen da, usainak edo zaratak jantoki-aretoa iristen uzten ez duena.

Eta orain sukalde irekien desabantailak zerrendatzen hasiko gara. Lehenik eta behin, zaratak. Egongelan edo jangelan norbait badago eta sukaldea erabiltzen bada, janaria prestatzean, sukaldean (baita kanpaia funtzionamenduan dagoenean ere), ontzi-garbigailua jasotzean eta abarretan sortzen diren zaratak ondoko gelara iritsiko dira.

Bestetik, kozinatzen duzun guztiaren usainak aldameneko girora iritsiko dira. Horrek batzuetan zalantza sortzen du. Gai hori saihesteko, garrantzitsua da ke-kanpai on bat aukeratzea.

Janaria prestatzen duguzunean, jaso aurretik, jangelako janariaz gozatzen duzun bitartean, lan-eremuko desordena agerian geratuko da, sukalde irekia eta komunikatua baita. Sukalde itxi bat bada, itxi atea eta ez duzu ezer ikusten.



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.  
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua



Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxe: 943 20 77 34 [jorgevega.eibar@gmail.com](mailto:jorgevega.eibar@gmail.com)

## Irlak sukaldeetan

Ondo diseinatutako irlak sukaldeen zati integral bihur daitezke. Oro har, gelaren erdian jartzen dira, eta janaria prestatzeko eta jateko espazio gehigarria ematen dute. Sukaldeko foku-puntu ere bihur daitezke.

Sukaldeko irlek jateko, janaria prestatzeko eta entretenitzeko leku gehiago izateaz gain, diseinu zentraleko pieza gisa ere hartzen dira.

Irla bat gehitzeak kontraesankorra dirudi sukalde txiki batean, lekua hartuko duelako, baina kasu askotan, alde positiboak negatiboak baino gehiago dira. Irtenbideetako bat irla estu eta luze bat da.

Sukalderako gurpildun uharte txiki hau perfektua da zure espazioan malgutasuna nahi duzunean.



**neure**  
dekorazioa

t. etxebarria, 21  
tel. 943 700 818  
neuredeco@telefonica.net

MARSI  
HOME

Toribio Etxebarria 5  
639403457



### **Ohatzeak (literak) itzuli egin dira, baina ukitu original batekin**


Literen booma hemen dago, baina ez dira orain arte ezagutu ditugun modukoak. Ohatzeek eboluzionatu egin dute eta oso dibertigarriak diren eredu berriak sortu dira, antolamendu eta forma berrieekin.

Horiei esker, ez du ohe bat bestearen azpian egon beharrik izango (horrek estutasun- edo deserosotasun-sentsazioa eragin diezaioke haurrari). Gainerako espazioa gehien interesatzen zai-gunerako baliatu ahal izango dugu, hala nola kutxatila-formatuko edo armairuko biltegitratze gehigarri baterako.



 **ISOLAMENDUAK  
ERREFORMAK  
ERAIKIN ERREHABILITAZIOA  
OBRAK ETA PROIEKTUAK**

943 57 41 03 Txonta, 27 - behea [www.jmr.eus](http://www.jmr.eus)



>>> Egungo munduko txapel-duna goren-gorenean, bere aurretik titulua izan zuena aldamenean, eta eurekin garaipen gehien izan duena beste aldean. Podium ikaragarria osatu zuen III. Eibarko Hiria Sari Nagusiak aurreko domekan, munduko txirrindulari onenekin osatutako karteldegiaz baliatuz Arraten amaiera ezin bikainena emateko. Aurrekoa gutxi baltiz, bertakoek ere maila eman zuten beste behin eta, horrela, gure errepideak ondo ezagutzen dituen Ane Santesteban seigarren helmugaratu zen eta zortzigarren izan genuen Eider Merino bera ere. Bestelako sailkapenetan honako emaitzak erakutsi zituen Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako proba handiak: mendiko sailkapena Anna Van der Breggen lasterketako irabazlearentzat izan zen, tarteko helmugena Clara Copponirentzat, taldekakoa Team BikeExchan-

## Ezin daiteke III. Eibarko Hirikoa baino podium hoberik osatu



Van Vleuten, Van der Breggen eta Longorekin ospea eman diote probari.

gerentzat, Evita Muzic izan zen 23 urtetik azpiko sailkapena bereganatu zuena eta, azkenik, aipatutako Santestebanek irabazi zuen lehen euskaldunarentzat zegoen saria.

165 txirrindulari abiatu ziren irteera-puntutik eta, behin ibilbidearen 117 kilometroak osa-

tuta, 120 izan ziren helmugaratu zirenak. Irabazleak orduko 37'752 kilometroko batez bestekoa egin zuen eta azken kilometroetan erabaki zen proba, Usartzarako igoeran hiru onenak bakarrik geratu ondoren. Hor aurtan, gorenean dagoela, erretiratzea aurreikusten duen

Van der Breggenek eman zuen azken aizkorakada Annemiek Van Vleuten herrikidea (herbeheretarrak dira biak) atzean lagatzeko; azken hori 16 segundora helmugaratu zen, eta 42ra sartu zen Elisa Longo Borghini italiarra.

Txirrindularitzaren alde gure herriko klubak egiten duen lan esker gako ondo merezitako fruitua jaso zuen Arrateko helmugan osatutako podiumarekin. Antolaketako lan bikainari esker egin dute aurrera denboraldi arraro honetan ere, eta meritu bikoitza du lorpen horrek ikusita eguraldia behin eta berriz aurka izaten dutela: Valenciaga Memorialean suertatutakoaren antzera, oraingoan ere euria presente izan zen goiz-goizetik. Horrek ekarri zuen hainbat erorketa izatea proban eta bost txirrindulari ospitalera eraman behar izatea, euretako batek lepaiztaia hautsita.

## Uda igeriketa kanpaina abiatu du Kirol Patronatoak

>>> Aurreko zapatuan hasita eta 30era bitartean egin daiteke aurreinskripzioa Uda 2021 Igeriketa denboraldian parte hartzeko. Izena Ipurua eta Orbea kiroldegietan zuzenean egin daiteke eta baita [www.eibarkirola.eus](http://www.eibarkirola.eus) bitartez ere. Behin epe hori amaituta, hurrengo egunean, hilaren 31n, egingo da zozketa izena eman dutenen artean eta horko emaitzak ekainaren 1ean argitaratuko dira Ipuruako iragarki-taulan eta aipatutako web-orrian. Lehen-tasuna izango dute ikastaro osora apuntatzen direnek eta baita bazkide direnek ere. Ikastaroak 2018an eta aurretik jaiotakoentzat izango dira eta ekainaren 28tik uztailearen 23ra arte iraungo

dute. Hiru mota izango dira, daten arabera: ikastaro osoak aipatutako egun horiek hartuko ditu, lehenengo hamabostaldikoa ekainaren 28an hasi eta uztailearen 9an amaituko da eta, azkenik, bigarren hamabostaldikoa uztailearen 12tik 23ra arte iraungo du. Ikastaroak egiteko izena emateko epea ekainaren 7an hasiko da eta presentzialki egin beharko da, diploma edo maila agiria aurkeztuz (zapaburu eta ahate mailetan kenduta) eta ordainketa txartelaren bidez egingo da. Ekainaren 14tik aurrera zozketan parte hartu ez dutenei izena emateko aukera eskainiko zaie, beti ere eskaeren ordena errespetatuz.

## Urbatek Euskal Herriko Ligaren lidergoa berreskuratu du

>>> Partidu bikaina jokatu zen aurreko barixakuan Orbea jokaturakoa ligako talde onenen artean, hainbat gorabeherekin markagailuan eta eibartarren amaiera bikaina erakutsi zuena. Waterpolo Donosti talde handia 1-4 aurreratu zen, baina hirugarren zatirako Urbatekoek 7na berdintzea lortu zuten. Hortik aurrerakoak jokaturako azken bost lehiaketetako (Liga eta Koparen artean) irabazlearen aurpegirik onena erakutsi zuen,



denbora tarte txikian markagailua iraultzeko gai dela erakusteko. Horrela, amaierarako bi minutu eta erdi falta zirenean 7-9 galtzen zihoan taldeak bederatzina berdintzea lortu zuen minutu bateko tartean. Hor berriro aurreratu ziren donostiarrak, 40 segundoren faltan Urbatekoek berriro berdinketa lortzeko. Hamarnakoarekin eibartarrak jokalaria bat gutxiagorekin geratu ziren, baina donostiarrak ez zuten jakin aukera horri etekinik

ateratzen eta, hurrengo jokaldian, Basterrika eta Jon Treviñoren arteko konexioa bikain burutu zuen azkenak, baselina batekin behin betiko 11-10ekoa eskuratzeko. Liga amaitzeko hiru jardunaldi besterik falta ez direnean, eibartarrak bakarrik geratu dira lidergoan, Donosti eta Askartza B hiru puntura dituztela. Askoz ere neurrerako errazagoa izan zuen gizonen artean bigarren taldeak: Urbate B, 17 - Larraina B, 2.



## Hierros Servando lider da ligako azken jardunaldiaren faltan

>>> Eibar Eskubaloiko lehen taldeak Anaitasuna harrapatu eta 1. Nazional Mailako gobernera igo da, Avefor Huescari 33-28 irabaztearekin batera, Anaitasunak Tolosarekin 28-31 galdu zuela aprobetxatuta. Multzo horretako liga amaitzeko jardunaldi bakarra geratzen da eta, igoera fasea jokatzeko biak sailkatuta badaude ere, txapela jokoan izango dute asteburu honetan: eibartarrek Beti Onak talde indartsua bisitatuko dute, baina nafarrek ez dute aurkari errazagoa izango, Barakaldora joan behar dira-eta. Ipuruan aragoiarren aurka jokatutako

partidua zaila izan zen Fernando Fernandezek mutilentzat eta gogor egin behar izan zuten azkenean bost goleko alde ateratzeko, lehenengoko 30 minutuak berdinduta amaitu ondoren. Lander Casado, zortzi golekin, izan zen Hierros Servandoko goletzaila nagusia.

### Kadeteak Euskal Txapelketan

Kadete mailako Grupo Mecalbes nesken taldeak, bestalde, Euskal Txapelketako azken fasea jokatu zuen aurreko asteburuan eta, jokatutako hiru partidua galdu bazituen ere, sentsazio onak lagazituen eta Espainiako



txapelketarako txartela eskuratu du. Eibar Eskubaloiko beste talde guztiek garaile izan ziren asteburu horretan: seniorretan, emakumezkoen Grupo Mecalbek 20-15 irabazi zion Urnietari eta gizonezkoen bigarren tal-

deak 28-21 Egiari; jubeniletan, nesken Mecalbek 19-34 garaitu zuen Leizaran eta mutilen H. Servandoko A eta B taldeek 21-24 eta 25-14 irabazi zieten Hondarribia-Bidasoa eta Erreka Bergarari, hurrenez hurren.

## Eibar FTK 1. Mailari agur esango dio Ipuruan Messiren aurka



>>> Zazpi denboraldi, inork uste baino askoz gehiago, egin ditu Eibar FTK 1. Mailan eta bihar agur esango dio aurreko domekan Valentzian galdutako mailari. Ipuruan izen handiko bisitaria izango du, Bartzelonak egingo baitio aurre 18:00etatik aurrera, munduko jokalaririk onena tartean dela. Eibar FTK, bestalde, Garagarza zuzendari

teknikoa galduko du eta badi-rudi Mendilibarrek berak ere ez duela jarraituko. 2. Mailan jokatu beharreko denboraldiari begira aurpegi berri asko izango ditu klubeko talde nagusiak. Zaletuek ere taldea maila berriaren goiko postuetan ikusiko duten itxaropena dute eta 1. Mailaren agurra gero arte baten lagatzeko asmoarekin.

Iberdrola Ligako emakumezkoen taldeak ere bihar izango du hitzordua, eguerdiko 12:00etan, Valentzia hartzeko Unben. Jaitsierako postuetatik sei puntura daude Dorronsorenak denboraldia amaitzeko lau partiduren faltan eta jokoan dauden puntuak erabakigarriak izan daitezke mailari behingoz eusteko.

# AURREMATRIKULA

## MAIATZAK 31 TIK EKAINAK 18 RA

### ERDI MAILA

- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA
- IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA
- MEDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA
- SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA
- ERIZAITZAREN LAGUNTZA
- KARROZERIA



**Meka**  
Lanbide Eskola

### GOI MAILA

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- AUTOMOZIOA
- HAUR-HEZKUNTZA
- METAL ERAIKUNTZAK
- GIZARATERATZEA (ESKAITZETA PARTZIALA)
- DIETETIKA (BERRIA)
- GENERO BERTINTASUNA
- SUSTATZEA (BERRIA)

### ESPEZIALIZAZIO KURTSOA

IBILGAILU HIBRIDO ETA ELEKTRIKOEN MANTENUA (BERRIA)



Euzko Jaurlaritzako  
Arregiotza Kalea, 21  
20870 Elgoibar  
(Gipuzkoa)

Tf: 943.74.80.19  
bulegoa@meka-elgoibar.eus  
www.meka-elgoibar.net

Alburtzi eraikuntza  
Alburtzi Pol. 26  
20870 Elgoibar  
(Gipuzkoa)



**Fp**  
LANBIDE HEZIKETA

## Herriko hainbat foball-talde sailkapenetako lidergoan

>>> Ez da talde nagusien kasua, normala denez horiek hain goi mailako ligetan jokatzeko nahiko lan dutelako mailari eustearekin bakarrik, oraingoan gizezkoen kasuan ikusi dugun bezala. Gehienon buruan ez zegoen denboraldi bat edo bi baino gehiagorako tarterik Eibar FT-rentzat LaLigan, baina azkenean zazpi izan dira “munduko liga hoberenean” egindakoak; hain txarto ohituta gintuzten oraingoan maila galtzea etorri denean errudunak bilatzen hasiko gara. Emakumezkoen taldeak ere, maila bikaina erakutsi arren, borrokan dihardu azken lau postuetan ez erortzeko; aurtien jaitsiera postuak biderkatu egin direlako Iberdrola Ligan azken denboraldian jaitsierarik ez zelako izan.

3. Mailan jokatzeko duen Victoria filialak oraingo fasean lortu ezin izan duen igoerarako azken aukera izango du 2. B mailara



Eibarko foballa osasuntsu dago behe mailakoetako lehiaketetan.

igotzeko, eta horri dago begiratzen probintziako Ohorezko Mailan lider amaitu zuen Eibar Urko 3. mailara igotzeko igoera fasean. Berak eta Vitoriak ezin dutelako maila berean kointziditu. Eibartarrek lehenengo kanporaketan Zarautz kaleratu dute, baina ondo kostata, azken minutuan Uzkudunek penaltiz sartutako gol bati esker;

Barrasak egin zuen lehenengoa Unben.

### Harrobian ere indartsu

Gorengo Maila Erregionaleko laugarren multzoan Urki igoberriak lider jarraitzen du azken jardunaldian Ikasberri 7-1 irabazi eta gero, bi hacktrick eman ziren partiduan: Jonan Recio eta Garba izan ziren

hiruna gol sartu zituztenak. 1. Erregionaleko bigarren multzoan Eibartarrak-ek lidergoari eusten dio azken jardunaldian Anaitasunarekin 3-1 galdu bazuen ere. Eta Euskal Ligan, emakumezkoen bigarren taldeak orain arteko ibilbide bikainari eutsi dio eta, Bizkerreri 2-4 irabazita, bigarren postuan amaitu du lehen fasea, Athletic-engandik hiru puntutara geratuz.

Behin harrobiko taldeetara jaitsita, jubenil mailako Eibarraren bigarren taldeak sendotasuna jarraitzen du erakusten Euskal Ligan eta 4-7 irabaziz multzo Artxabaletari lehenengo multzoko partiduan; partidua bakarra galduta, sei puntuko alde kentzen dio Romo bigarrenari. Jubeniletako Ohorezko Mailan jokatzeko duen Eibar FT-ko lehen taldea laugarren da sailkapenean, Athletic, Osasuna eta Alavesen atzetik.

## Ipuruako gimnastek goi-goian laga zuten herriko pabilioia Gipuzkoako txapelketetan

>>> Tolosan aurreko asteburuan jokaturako lehiaketa horretan senior mailako I taldeak urrezkoa irabazi zuen federatuetako maila absolutuan, senior P taldea laugarren sailkatu zen bitartean. Taldeka bikain erantzuteaz gain, banaka ere ezin hobeto jardun zuten Ipuruakoek, aparatuetan sei domina eskuratuta. Ez zen hori izan senior mailako talde bi horiek lortutako emaitza bikain bakarra, on line egindako

Macarena Milla torneoan ere I seniorrak urrezkoa bereganatu zuelako eta P seniorrak brontzezkoa. Tolosako Gipuzkoako txapelketetara bueltatuz, oinarri mailetako kadeteetan eibartarrek podiuma osatu zuten Haizeder Arguiz (txapelduna), Naroa Alonso (bigarren) eta Maialen Apraizekin (hirugarren); horrez gain, jubeniletan Ane San Martinek jantzi zuen txapela eta June Araujo hirugarren izan zen.



Maila autonomikoan federatutako 15 gimnastek domekako amateur torneoan hartu zuten parte eta, bi urtetan lehiaketarik egin gabe egon eta gero, 17 metalekin itzuli ziren: urrezko lau, zilarrezko sei eta brontzezkoak beste zazpiak. Maria

Horcajok eta Irati Andrinuak osatutako bikoteak (sailkapen orokorrean eta pilotarekin), Elene Lazpitak eta Nahia San Martinek osatutakoak (sailkapen orokorra) eta Nahia Morenok (pilotarekin) eskuratu zituzten urrezkoak.

## Jaz taldeko hiru ordezkari izan ziren Iruñako triatloian

>>> Denboraldiko distantzia ertaineko lehen triatloietakoa jokatu zen aurreko zapatuan Iruñan, Eibarko taldeko hiru ordezkariaren parte-hartzearekin. Hiru probetatik bakarrik igeriketakoan lagundu zuen eguraldiak, behin bizikleta hartuta euria nagusitu zelako eta

jaun eta jabe izan zelako proba amaitu arte. Hala ere, Jaz-eko hiru kideek lortu zuten amaitzea: Ioseba Tamayok 4 ordu eta 7 minutu behar izan zituen, Joseba Mikel Ortégak 22 minutu gehiago eta Gonzalo Saezek 26, 4 ordu eta erdi pasatxoan helmugaratzeko.



# GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2021-2022

## MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



Unai Sajeras Andrade, Eskoriatza  
ASIR Sareko Informatika  
Sistemen Administrazioko Goi-Mailako Heziketa Zikloa

Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldiak
•Automatizazioa eta Robotika Industriala	Maiatzak 29 11:00
•Mekatronika Industriala	
•Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa	
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	

www.mondragon.edu/gmhiz orientazio.lhm@mondragon.edu  
664 298 704 • 664 298 683

### Zergatik aukeratu zenuen Goi Mailako Ziklo hau? Eta Zergatik MGEP?

Arizmendi Ikastolan Mikroinformatikaren Sistemak eta Sareak Erdi-Mailako Zikloa ikasi nuen eta ASIR jarraipen naturala izan da niretzat.

Ni Eskoriatzan bizi naiz eta etxetik gertu zegoelako erabaki nuen batik bat. Bertan toki desberdinetako eta ibilbide desberdinetako jendea bildu gara eta ondo, jende berria ezagutu dut, giro oso on daukagu klasean eta baita klasetik kanpo, bai lana egiteko eta bai gainontzeko kontuetarako.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, ekipo-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer izan da zuretzat erronkataran lan egitea? Taldeko lanak egin ditugu, egoera desberdinetan garapen teknologikoak ebazteko baina gehienetan erronka pentsatu eta prestatu egiten genuen talde lanean. Gero garapena burutu eta, ondoren, aztertu prozesua, emaitzak eta hartutako erabakiak. Bukatzeko dokumentazioa prestatu behar izaten genuen, horrek ere garrantzia izan ohi du.

### Nola baloratuko zenuen esperientzia hau?

Esperientzia ona izan da, etorkizunerako baliagarria izango dela uste dudalako.

### DUALean aritu zara? Non eta ze lanak egiten.

Arizmendi ikastolako Informazio Sistemako lantaldean aritu naiz urte betez DUALean. Han 4 bat pertsona desberdinek osatu dugu lantaldea. Denetarik egiten nuen enpresan, langile eta ikasle ordenagailuak batu, hauek konpondu matxurak badituzte, gelak eta laborategiak prestatu, egokitu, IKT baliabideen eguneraketak eta mantentze lanak ... Egia esan, uneko egoera da zer egin.

### Zer ikasi duzu Arizmendi Ikastolan?

Gauza berri asko ikasi ditut. Beti gauzak txukun jartzen, dena dokumentatzen, alde batetik zuretzat egin beharreko lanak ez ahazteko, baina baita lan talde baten zaudenean, denon artean zerbitzu on bat eman ahal izateko. Niretzat DUALa aukera ezin hobea izan da.

### Arizmendi Ikastolan eginitako lanean, zikloan ikasitako erabili duzu?

Gauza batzuk bai, gehienetan sistema eragileekin egin behar izan ditudan lanetan. Baina gauza berriak ere suertatu zaizkit, eta gai izan naiz hauei ere erantzun egokia emateko. Azken finean, teknologia desberdinak daude, eta konponbideak bilatzeko gaitasuna ere lantzen dugu ikasketetan.

### Orain daukazu ikuspuntuarekin, zein asmo duzu hurrengo kurtsorako?

Agian beste goi mailako ziklo bat egingo dut informatikarekin lotuta orain daukadan ezagutzak finkatzeko. Argi dut informatika gustuko dudala, eta nahi dudana bidean nagoela sentitzen dut.



2020-2021

Erreferendumaren aldeko  
sinadura bilketa masiboa  
Recogida de firmas  
masiva por el referéndum

Altxa.  
Sinatu.  
Erabaki.

hamaikagara.eus



MAIATZAK 22 ZAPATUA

UNTZAGA  
Plazan  
12:30  
14:00

SINADURA BILKETA  
eta  
MATERIAL SALMENTA



Hamaika  
Gara

ERREFERENDUMAREN ALDE



GURE  
ESKU





'Poesía... eres tú' taldeko kideek poesia lehiaketa batean hartu dute parte aste honetan Bilbon.

## <<< POESÍA... ERES TÚ • Poesia taldea >>>

# “Pertsona nagusiak gara eta poesia oso lagungarria izan da guretzat pandemian zehar”

'Poesía... eres tú' taldeko M<sup>o</sup> Jesús Sáez, Mari Pérez, Mariaje Murillo, Elisa López eta Araceli Bonok zainetan daramate poesia eta han eta hemen erakutsi dute (martitzenean Bilbon izan ziren lehiaketa batean, adibidez). Maite Lorezorekin ikasi ondoren, orain euren kabuz dabilta, ezerk ez dituelako gelditzen. Facebooken taldea sortu dute euren pasioa zabaltzeko.

### Noiztik dihardu martxan 'Poesía... eres tú' taldeak?

LÓPEZ: Taldeak aspalditik funtzionatzen du, baina kontua da orain arte Maite Lorezorekin ibili garela eta pandemia hasi zenean berarekin klaseak eten behar izan genituela, eta gure kabuz jarraitu dugula. Poesia asko maite dugu eta ez genuen hori galdu nahi. Na-

gusiak gara eta poesia oso lagungarria izan da pandemian zehar. Beraz, zerbait hasi baino, zerbait jarraitu dugu.

### Nola moldatzen zarete irakasle barik?

LÓPEZ: Batak besteari laguntzen dio eta taldean ez dago inolako hierarkiarik. Ondo moldatzen gara horrela. Izan ere,

sasoi nahasi honetan pare bat errezitaldi eskaini ditugu eta Facebooken taldea sortu dugu bideoak jartzeko.

### Nolako olerkiak errezitatu zenuzten Bilboko lehiaketan?

LÓPEZ: Batetik, parte-hartzailerik guztiek Angela Figueraren 'Difícil' izeneko sonetoa errezitatu behar zuten; eta bigarre-

nik, bakoitzak nahi zuen poesia errezitatu zezakeen. Hori bai, aukeratutako olerki hori aurretik argitaratua izan behar zen, nahita nahiez. Nik Araceli Bono kidearen 'La puerta' errezitatu nuen, hain ezagunak ez diren poeten lanak entzunarazi nahi nituelako. Klasikoetatik asko ikasi behar da, baina ezezagunei ahotsa eman behar zaie.



**Araceli, nola hartu duzu Elisak zure olerki bat aukeratu izana?**

BONO: Aparta iruditzen zait, ilusio handi egiten dit horrek! Ez da nire olerki bat errezitatzen duten lehen aldia, liburu bat kaleratu dudalako.

**Gustora ibiltzen zarete lehiaketetan?**

BONO: Ez da lehiaketa honetan parte hartu izan dugun lehen aldia. Izan ere, iaz gutako bat finalera iritsi zen, baina ezin izan zen joan gaixotu egin zelako.

**Mari, zu zara taldeko nagusia. Zurea da esperentziaren ahotsa?**

PÉREZ: Gazte hauek edozer gauza egiten didate! (barreak) 84 urterekin, ni naiz guztien amama. Bromak alde bateralagata, talde honek bizitza pixka bat ematen dit, denbora gutxi dudalako etxetik irteteko.

**Beti gustatu izan zaizu poesia?**

PÉREZ: Txikitan eskolan eta mezetan zerbait egiten nuen, baina gero ez dut denbora gehiegirik izan, lau seme-alaba eduki ditudalako eta, gero, ama etxean gaixorik egon delako. EITBn lana egiten duen semeak animatu ninduen poe-

**“Poesia oso polita da, baina ez zaio kantxa handirik ematen”**

sia klaseak hartzera eta hortxe nabil gazte hauekin gora eta behera.

**Pozik zaude hartutako erabakiarekin?**

PÉREZ: Poesia oso polita da, baina ez zaio kantxa handirik ematen. Gehiago bultzatu behar da, batez ere jende gaztearen artean. Taldearen atea zabalik daude jende gaztearentzat.

**Nolako da zuen ohiko jarduna?**

PÉREZ: Astero elkartzen gara, barixakuetan, 17:00etan, Untzagako jubiletxean. Norbaitek izena eman nahi badu, ez dugu ezer kobratzen. Lehiaketetara joaten garenean eta horrelakoetan ordaindu behar da zerbait bakarrik.

**“Klasikoetatik asko ikasi behar da, baina ezezagunei ahotsa eman behar zaie”**

**Mariaje Murillo, zu hasiberria zara. Zer moduz hasiera?**

MURILLO: Oso ondo! Publiko aurrean poesia errezitatzen dudan lehen aldiak izan dira eta abentura bat izan da niretzat. Ikasten nabil. Izan ere, olerkia irakurtzeaz gain, zentzua eman behar diozu. Taldekideek asko lagundu didate prozesu horretan.

**Lehen aldia nola moldatu zinen publiko aurrean?**

MURILLO: Nahiko lasai nengoen, egia esan. Beste taldekideek nik baino hobeto egiten dute, argi dago, baina poliki-poliki ikasiko dut. Eurek asko laguntzen didate. eta poesia irakurtzen eta errezitatzen duzun neurrian gehiago ikasten duzu. Hau ez da gure ogibidea eta gozatzea da kontua.

**M<sup>o</sup> Jesús Sáez, zuk hainbat urte daramatzazu taldean. Nola-ko garapena izan du taldeak?**

SÁEZ: Hasieran 14 lagun biltzen ginen eta azken aldia 10 bat lagun genbiltzan, baina pandemiarekin jardura eten zen, lokala txikia zelako eta ezin genituelako segurtasun-neurriak bete. Beraz, esan bezala, taldearen jarduna eten zen, baina guk taldetxo hau sortu genuen poesiarekin jarraitu ahal izateko.

**Poesia errezitatzeaz gain, idatzi egiten duzue?**

SÁEZ: Aracelik liburua argitaratu zuen eta nik ere olerkiak idazten ditut, baina inoiz ez dut ezer aurkeztu publikatzeko. Niretzat idazten dut, betidanik, asko gustatzen zaidalako. Barritik irteten zaidana idazten dut, irteten zaidan moduan.

**Nonbait ikasi duzu poesia idazten?**

SÁEZ: Errezitatzen bai, Maitte Lorenzok irakatsi zigulako, baina idazten inon ere ez. Poesia irakurtzen eta entzuten duzun neurrian, nola egin ikasten duzu. Gero, bakoitzak poesia egiteko bere modua izaten du, bere estiloa, poesia oso gauza pertsonala delako.

**UDA DANTZA JARDUERAK BIRAKAren eskutik (Txirio Kale, 1)**



2

txanda

ORDUTEGIA: 09:30 / 13:00

2012 eta 2007 jaiotakoentzat

EKAINAren 28tik UZTAILAren 9ra

UZTAILAren 12tik 23ra

Arduraduna: Eva Pequerul (BIRAKAko Irakaslea)

*Sormena, dantza, jolasak eta beste egingo ditugu eskolan eta kalean animatu zaitezte!!*

INFORMAZIO GEHIAGO:

Eva: 669558381

Instagram: @birakadantza

Birakadantza eskolan - Txirio kale, 1

EGUNERO: 17:00etatik 21:00etara

**2021-2022 ikasturterako IZEN-EMATEA ZABALIK dago**







## Klub Deportiboaren eskutik egunean hasiko da 56. Euskal Jaia, talogintza tailerrarekin

Eibarko Klub Deportiboak 56. Euskal Jaia antolatu du maiatzaren azken egunetarako, betiere pandemiak eragindako osasun baldintzetara egokitu-ta. Egitaraua egunean, maiatzak 27, hasiko da, 18:00etan Arrate Kultur Elkartearen egungo den talogintza ikastaroarekin. Hurrengo egunean, berriz, 19:00etatik aurrera “Ederrak jakuz etorri” izenburuko kontzertua emango dute Mice, Mursego eta Kokeinek, Coliseo antzokian. Sarrerak Depo- rren salgai daude, 5 eurotan (17:00etatik 21:30era bitartean joan daiteke erostera).

Eta asteburuan, zapatuan (maiatzak 29), egur taila tailerra egingo da Igor Unanueren eskutik, 17:00etatik 19:00etara, Arrate Kultur Elkartearen. Tailerrak 12 euro balio du (10euro bazkideentzat). Izena emateko edo informazioa eskatzeko arratekultu@gmail.com

helbidera idatzi edo 638 284 912 telefono zenbakira deitu daiteke.

Amaitzeko, maiatzaren 30ean, 12:00etan, “Euskal Jaia dantzan, korrotik pikutara” eskainiko du Kezka Dantza Taldeak Coliseo antzokian. Sarrera doan da, baina aforoa mugatu-ta dagoenez aurretik txartela eskuratu behar da, antzokiko leihatilan edo Kutxabank zerbitzuaren bitartez.

Apirilean bertan Udaberriko Euskal Jaia antolatzeko behar- rean aritu eta jarraian, Klub Deportibokoek ez dute atse- denik hartu eta, egoerak eska- tzen dituen prebentzio neu- rriak zainduta, egitarau biribila prestatu dute maiatzaren azken egunetan Euskal Jaia ospatu ahal izateko. Antolatutako- en berri emateko Iru- ne Jaio- ki diseinatu dituen karte- lek ere ai- pamen berezia merezi dute, jen- deari asko gustatu zaizkio eta.




## Zuloagaren margolanen zozketako ordezkoren zozketako zenbakiak eman dituzte

Zuloagaren koadroen kopia baimenduak jasotzeko epea amaituta, irabazle batzuk ez direnez azaldu, ordezkoren zozketaren zerrenda eman dute argitaratu. Sarritutakoek udaletxeko 2. solairuan jaso ahal izango dituzte koadroak, maiatzaren 27ra arte, astelehene- tik barixakura, 09:00etatik 13:00era. Hona hemen jasotzeko geratu diren lanei dagozkien ordezkoren zenbakiak: 03061, 01337, 04610, 04049, 01768, 01799, 02865, 02845, 04514, 02776, 04619, 00266, 00841, 04573, 01011, 00764, 00534, 02768 eta 04515.

## Sanjuanak prestatzeko bilera irekia

Jaixak Herrixak Herrixandako plataformak argi du “nolabait jaiak ospatu ditugula”, nahiz eta pandemiaren ondorioz ezin izango duten euren ohiko jai eredu antolatu. Prestaketa lanekin hasteko, bilera irekia deitu dute gaurko, 19:30ean, Txaltxa Zelaiko kioskoan. Plataformak jai eredu feminista, euskaldun, herriko eta parte-hartzaileetan sinisten du eta herritarren laguntza “ezinbestekoa” dela uste dute Sanjuanetako jai egitaraua aurrera ateratzeko. Hori dela eta, ahalik eta jende gehien parte hartzea nahi dute.




## Eibarri buruzko bideo berria

Maiatzaren 18a Museoen Nazioarteko Eguna dela eta, Eibarko Armagintzaren Museoak aurten ere bat egin du ospakizunarekin eta, agindu bezala, gure herriaren sorrerari buruzko bigarren bideoa aurkeztu du bere YouTube- ren kanalean: lehen bideoak bezala, “Hiriaren finkapena” izenburuko lan honek ere Leire Kareagaren ilustrazioak ditu eta Javier Elorzaren “Eibar: Orígenes y evolución, XIV. mendetik XVI.era” liburuan oinarrituta dago. Jarduera hau Eibarko 675. urteurreneko egitarauaren barruan egin da.

**9 EZBERDINTASUN... TXAPEKIN JOKATZEKO**



**LABIRINTOAK**



**SUDOKUAK**

5					2		
		8		2	1		
3		2	5	9	4		
	4				3		9
6							7
	9		7				1
			1	5	2	6	4
			6	3		8	
		6					5

1	3	6	4	7	8	9	2	5
2	5	4	6	9	8	7	1	3
9	8	7	1	5	2	2	3	4
8	9	5	7	4	6	3	1	2
6	2	3	8	1	5	4	8	7
7	4	1	2	8	3	5	9	6
3	7	2	5	9	4	1	6	8
4	6	8	3	2	1	7	5	9
5	1	9	8	6	7	2	4	3

soluzioa

3		8					9
		1	7				8
			6				1
	3	2		6			
9							3
			1			9	2
8			4				
	9			2	7		
4			3				5

soluzioa

1	4	7	9	8	3	2	6	5
6	9	3	5	1	2	7	4	8
8	2	5	6	4	7	1	3	9
7	6	8	1	3	5	9	2	4
9	1	4	2	7	8	6	5	3
5	3	2	4	9	6	8	1	7
2	8	9	3	6	4	5	7	1
4	5	1	7	2	9	8	3	6
3	7	6	8	5	1	4	9	2



### SUDOKUAK

			7	1	2	6		
				8	6	1		
6								5
	9						7	3
			9		4			
1	5							6
	8							5
			1	3	2			
			6	8	7	1		



2	6	3	1	7	8	9	4	5
9	8	4	5	2	6	7	1	3
5	1	7	4	9	3	8	2	6
4	9	6	2	3	7	5	1	8
7	3	8	5	4	1	6	9	2
8	2	1	9	6	3	7	5	4
3	7	4	8	5	2	1	6	9
6	1	7	4	9	3	8	2	5
5	8	2	6	3	7	1	4	9
4	9	6	2	3	7	5	1	8

soluzioa

soluzioa

8	2	7	6	4	7	9	5	1
7	4	3	1	5	2	8	6	9
6	1	5	3	8	9	2	7	4
2	9	8	6	7	1	4	5	3
1	8	4	9	6	5	1	2	7
5	3	7	1	2	4	8	6	9
4	5	2	8	9	7	1	3	6
8	9	1	7	5	3	4	6	2
3	7	6	2	4	1	9	5	8

		6			1			
	9		7	5	3			2
			8					3
	3				4	8		
1								7
		9	8					4
6				9				
7			5	1	2			8
			4			5		



### LABIRINTOAK

### 10 EZBERDINTASUN... IBIZATIK IRTEN GABE





Aurpegiak dena esaten du. JOSE LUIS IRIGOIEN



# Maiatza 21 / 27

## BARIXAKUA 21

### KONTZERTUA

**19:00** "Islak" (Mikel Azpiroz).  
10 euro (7 euro Coliseoaren La-  
guna txartelarekin). Coliseoan.



### BILERA IREKIA

**19:30** Sanjuanak prestatzeko  
bilera irekia. Txaltxa Zelaiko  
kioskoan.

## ZAPATUA 22

### DOKUMENTALA

**10:00** Burgosko Prozesuari  
buruzko dokumentala. So-  
lasaldia Josu Ibargutxirekin.  
Gaztetxean.

### MANIFESTAZIOA

**12:00** Manifestazioa eta in-  
formazioa emateko mahaia.  
Eibarko Pentsionista Taldeak  
deituta. Untzagan.

### SINADURA-BILKETA

**12:30/14:00** Erreferendumaren  
aldeko sinadura-bilketa eta  
material salmenta (Hamaika  
Gara). Untzagan.

## DOMEKA 23

### KONTZERTUA

**12:30** Usartza Txistulari Tal-  
dearen kontzertua. Untzagan.

## ASTELEHENA 24

### MOBILIZAZIOA

**12:00** Elkarretaratzea, Eibarko  
Pentsionista Taldeak deituta.  
Untzagan.

## MARTITZENA 25

### SINADURA-BILKETA

**18:00/20:00** Erreferendumaren  
alde (Hamaika Gara). Klub  
Deportiboan.

### ILLUNABARRIAN

**18:00/20:00** Paperezko bitxiak  
egiteko tailerra. Kultur.

## EGUAZTENA 26

### LORE BANAKETA

**10:00/13:00** Balkoi-lehiaketa-  
rako lore banaketa. Untzagan.

### PAGATXA

**17:00** "Pagatxa Mugimen-  
duan" ekimeneko lehen saioa.  
Portalean.

## EGUENA 27

### PLAZA HUTSA

**18:00** Euskeraren Plaza Hutsa  
lanaren aurkezpena. Kultur.

### SINADURA-BILKETA

**18:00/20:00** Erreferendumaren  
alde (Hamaika Gara). Klub  
Deportiboan.

### IKASTAROA

**18:00** Talogintza ikastaroa.  
Kultur.



### KONTZENTRAZIOA

**19:30** Presoen alde. Untzagan.

## ERAKUSKETAK

### Maiatzaren 30era arte:

#### ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

**S. ASENSIO, J. ORTIZ, J.A.  
GURRUTXAGA, M.J. CUELI**  
(Portalean)

**JAVIER P. FDEZ FERRERAS**  
(Topaleku)

**KLUB DEPORTIBOA**  
(El Ambigú/Portalea taber-  
nak)

**JOSE LUIS TEJEDOR** (Depor)

**XLVII. GIPUZKOA SARIA**  
(Untzagako jubilatuta etxean)

**BA AL DAKIZU?** Astindu zalantzak!!

Telefonoz deitu dut udaletxera. Hartu didanak euskaraz agurtu nau, baina gero gaztelaniaz jarraitu du

**ZER EGIN DEZAKET ?**

**ERANTZUNA**

Euskaraz egin dezakezu, zure eskubidea da. Telefonoa hartu duenak ezin bazaitu behar bezala atenditu, beste langile batek emango dizu zerbizua.

Gaztelaniaz egin beharko duzu, zerbait badakien arren, baliteke deseroso sentitzea

Euskaraz jarrai dezakezu, udal-langile guztiak dakite eta euskaraz

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Farmaziak

### BARIXAKUA 21

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

### ZAPATUA 22

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

### DOMEKA 23

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

### ASTELEHENA 24

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

### MARTITZENA 25

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

### EGUAZTENA 26

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

### EGUENA 27

EGUNEZ | Azkue (T. etxebarría, 4)

### BARIXAKUA 28

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2021ean,  
Izpizua (Ibarkurutze, 7)

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Hildakoak

- **Angel Dominguez Manso.** 78 urte. 2021-4-26.
- **Isidro Aizpurua Askasibar.** 86 urte. 2021-5-11.
- **Victoria Artetxe Bilbao.** 95 urte. 2021-5-12.
- **Enriqueta Bouzas Guede.** 79 urte. 2021-5-13.
- **Mauri Alba San Miguel.** 89 urte. 2021-5-14.
- **Carmelo Urdangarin Altuna.** 89 urte. 2021-5-14.
- **Arturo Gomez Reboredo.** 84 urte. 2021-5-15.

## Jaiotakoak

- **Daylen Duque Espinosa.** 2021-5-8.
- **Elene Ugalde Pagei.** 2021-5-11.

# ek!

**ESKELAK,  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK...  
jartzeko:**

**688 62 76 89**  
publizitatea@etakitto.eus

## #EibarrenBadakagu



**ek!**  
...eta kitto!  
Euskara Elkartearen astekaria

Jarraitu gaitzazu  
**SARE**  
**SOZIALETAN**





688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



### Zorion-agurrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **MAIALEN**, gaur urtetxua betetzen dozu-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **AITOR**, astelehenian 8 urte egingo dozu-eta. Musu potolo bat etxekuen eta, bereziki, Enekoren partez.



Zorionak, **UXUE**, martitzenian 4 urte bete zenduaz-en-eta. Etxekuak pozez zorutzen dakazuz zure bihurrikeri, abesti eta musuekin!!



Zorionak, **LUKAS** Unanue Thobie, eguaztenian 4 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat Ainhoa eta Michelen partez.



Zorionak, **NAHIA** Urigoitia, domekan 8 urte beteko dozuzelako. Segi beti bezain alai!!



Zorionak, **HELEN** Garcia-Pascual, hillaren 18xan 2 urte bete zenduaz-en-eta. Gurasuen eta aiton-amonen partez.



Zorionak, **JANIRE**, hillaren 19xan 11 urte bete dozuz-eta. Zoragarrixena zara eta oso harro gagoz zutaz. Askio maitte zaittuen zure gurasuen partez.



Ongi etorri, **MALEN**, hainbeste desiatzen genduana maiatzaren 7tik gure artian dago-eta. Gurasuen eta famelixakuen partetik.



Zorionak, **SABINA**, domekan 9 urte egingo dozu-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien eta, batez be, Antonen partez.



Zorionak, **JOL!!** Gaur 8 urte egin dozuz-eta!! Besarkada haundi bat!! Amama Edurnek eta aittitta Josuk.




Zorionak, **MADDI**, etxeko artista alaixa. Neskato haundixa egin zara eta oso harro gagoz. Musu potolo bat, etxekuen partez.



Zorionak, **AITANA**, etzi 2 urte beteko dozuzelako. Aitxitxa, amama, Markel zure anaixa eta Maialen lehengusiñaren partez.



Zorionak, **AIORA**, zapatuan 2 urtetxo beteko dozuz-eta, neska haundi!! Zorionak **AMATXORI** be, astelehenian zeure eguna izango dalako. Patxo potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, **CLAUDIA** gure printzesari, bixar 9 urte egingo dozuz-eta!!! Jarraitu horren alai!!! Aitxitxa, amama, aitta, ama eta, batez be, zure anaixa **JON**en partez! Pilla bat maitte zaittugu!!!



Zorionak, **ANNE** Lasuen, eguaztenian 4 urtetxo egin zenduaz-en-eta!!! Aitaxo, amatxo eta Markelen partez.



Zorionak, **IZARO**, hillaren 25ian 9 urte egingo dozuz-eta, neska haundi! Musu haundi bat etxeko danon partez!

## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- 22an: 19:00
- 23an: 19:00
- 24an: 19:00

#### "Borrar el historial"

Zuzendaria: Gustave Kervern



### 2 ARETOA

- 22an: 16:00, 19:00
- 23an: 16:00, 19:00
- 24an: 19:00

#### "El olvido que seremos"

Zuzendaria: Fernando Trueba



### ANTZOKIA

- 22an: 16:00 (1 aretoa), 19:00
- 16an: 16:00 (1 aretoa), 19:00
- 17an: 19:00

#### "Poliamor para principiantes"

Zuzendaria: Fernando Colomo



### ANTZOKIA

- 22an: 16:00
- 23an: 16:00

#### "Sablehortz kapitaina"

Zuzendaria: Matt Motourn



# Iragarki laburrak



**688 62 76 89**  
publizitatea@etakitto.eus

**Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko**

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldea eta komunak. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422.

## 3. LOKALAK

### 3.2. Errentan

- Estetika zentro batean kabina alokatzen da, nutrizio edo estetika gauzetan erabiltzeko moduan. Tel. 665733954.
- Garajea alokagai San Pion. Tel. 652775746.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Pringle poteak, gozokiak, txokolatetako aspitoak, burbuila poteak... egiten ditut urtebetetze, bataio, jaunartze eta abarretarako. Tel. 659604893.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 642053667.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Orduka. Tel. 635189294.
- Neska arduratsua eskaintzen da etxeak edo pegoarak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612574783.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean, eta etxeko garbiketarako egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 667060292.
- 20 urteko neska eskeintzen da ekaina edo/eta uztailean umeak zaintzeko. Tel. 650524195.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 645478251.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (erizain tituluarekin) eta tabernetan lan egiteko (sukalde lanetan esperientzia). Tel. 631881161.
- Eibarko neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta beste kudeaketa lanetarako. Tel. 658845081.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari bezala. Tel. 628321649.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Ordu-tegi malgua. Tel. 643887097.
- 20 urteko neska eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 681014109.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632576642.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak (ikastaro sozio-sanitarioa eginda) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 660542155.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak (ikastaro sozio-sanitarioa eginda) edo umeak zaintzeko. Tel. 631342098.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688762615.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631729476.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 612223075.

### 4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da emakume nagusiari etxeko lanetan laguntzeko. Tel. 687472084 (Ane).
- Estetizienek behar da, esperientziarekin, Eibarko ilepaindegian batean. Lan giro bikaina. Tel. 678674250.
- Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira Eibarko jatetxe baterako. Bidali curriculum: jatetxeaeibar@outlook.es
- Aho-hortzen higienista behar da. Bidali curriculum: hortzklina.06@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Irakaslea eskaintzen da LH eta DBH ingeleseko eta gorputz hezkuntzako klaseak emateko. Entrenamendu pertsonalak ere eskaintzen dira, heldu zein adinekoentzat. Tel. 692930121.
- Etxez-etxeko laguntza klaseak ematen dira. Bakarka. 640019325. Nerea.
- DBH eta Batxilergo klase partikularrik ematen dira. Ez galdu kurtsorik. Tel. 678937827. Patrizia.
- LH, DBH eta Batxilergo laguntza-klaseak ematen ditut. 1-3 laguneko taldeak. Tel. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab. klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677 592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Udaberrirako bi abrigo mehe eta alaiak salgai, eurekin jokoa egiten duten lepoko eta belarritakoekin. Estreinatuta gabeak. 150 euro bakoitza. Tel. 627325146

ek!

**688 62 76 89**  
publizitatea@etakitto.eus



# STOCK LIKIDAZIOA km.0

**KIA**  
NAIA CAR



**XCEED PHEV  
TECH ORANGE 22.900 €**



**TOURER PHEV  
TECH LUNAR 22.850 €**



**KIA eNIRO DRIVE (100kw)  
22.900 €**



**NIRO PHEV EMOTION  
PACK LUXURY 26.000 €**



**NIRO EMOTION  
RUNWAY RED 22.000 €**



**STONIC 100CV MHEV  
GT-LINE 18.900 €**



**STONIC DRIVE  
DCT NEGRO 18.500 €**



**SPORTAGE 1.6 CRDI 115CV  
CONCEPT - 21.800 €**



**PICANTO CONCEPT  
ASTRO GREY 10.500 €**



**PRO CEED GT LINE  
PACK PREMIUM 24.900 €**



**CEED 5P. 120CV T-GDI  
CONCEPT 15.900 €**



**CARENS 1.6 GDI 132CV  
DRIVE 5P. 14.800 €**

**KIA**  
NAIA CAR

 **Apalategi, 1 EIBAR**

 **943 707 033** 





**ESLABAN** eraikuntzen eraberritze proiektuetan espezializatutako enpresa da. Soluzio pertsonalatuak kalitate gorenarekin eta zerbitzu bermerik handienarekin eskaintzen dizugu.

## ■ Igogailuen instalazioa eta eraberritzea, oztopo arkitektonikoen ezabatzea...

- Eraikuntzen eraberritze lanak: fatxada eta estalkien zaharberitzeak.
- Eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko eraberritze lanak.

**B**  
[www.NewBEE.eu](http://www.NewBEE.eu)

**ESLABAN**en helburua, bezeroen behar zehatzei irtenbide egokiena ematea da, eta martxan jarritako eraberritze lan guztiak kalitate eta profesionaltasun maila handienarekin aurre egingo diogunaren bermea eskaintzea.

Otaola, 27 esk. eskuma, 3º ezkerre. ■ Apdo. 160  
20600 Eibar (Gipuzkoa)

Telf.: (+34) 943 820 407 ■ Fax: (+34) 943 820 724  
E-mail: [info@eslaban.com](mailto:info@eslaban.com)

[www.eslaban.com](http://www.eslaban.com)